

# Aupa berdeak!

Kirolak >> 9



# GUaiXe.eus



Sakana Lanbide Heziketa institutuko ikasleak pieza bat mekanizatzen. ARTXIBOA

## Lanbide Heziketa duala, ikasketa berria >>7

### eLe festa, euskal hiztun berriei aitortza

Omenaldia eta mintzodromoa egingen dira Altsasun, bihar, 12:30ean >>5

### Mainamikirri liburua katean >>13

### Irurtzunen kulturen arteko zubiak erakitzen

Arabiar kulturaren egunarekin hasiko da kulturartekotasun astea >>5

### Sakana Pop-Rock Lehiaketako finala larunbatean >>15

### Iturmendin eta Altsasun izanen dira festak asteburuan >>3

### III. Binakako pilota goxua txapelketako finalak Altsasun Larunbatean, 17:30ean. >>9

**Aurten, MECNA-ri esker %40a desgrabatuko duzu! Eta 150€tik gora ordaindu baduzu, %80a.**

Agencia Tributaria  
www.agenciatributaria.es

GuaiXe fundazioa Mecna

Eska ezazu errenta altorpenerako ziurtagiria: admin@guaixe.eus edo 948 564 275, Foru plaza 23, 1. solairua · Altsasu

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Ainetz Lazkoz

**Ginea**  
ZORIONAK guapisimo!!!  
7 urte dagoeneko, sei-  
ttu guai arte bezain alai  
ta zoriontsu! Muxu pila  
bat familia guztiaren  
partetik.

## Zorionak aittona!

Egun ona pasa eta mu-  
xu pila bat zure bi prin-  
tzesen partez, Ane eta  
Miren.

## Zorionak Vixi!

Dagoeneko 32 urte, la-  
gun fridayista guztien  
partez segi bide onetik  
eta gida gaitzazu, asko  
maite zaitugu!!!.eta Naf-  
ere bai!!! Aaaboooka-  
daaaa!!! GORA AKAB

## Zorionak Bus!

33 urte Ollotik Altsasu-  
ra...ta "bizebertsa". Ar-  
tzain-eroa eta lagun  
handia. Ea zein den zure  
hurrengo burutAK-  
ZIOA, Animo mutil!  
Mundua duzu zain!

## Zorionak Iزارo!

Segi izaten gure ero-  
kuadrillako gatza&pi-  
perra...Eta independen-  
tziaz goza ezazu...  
Asko maite zaitugu!  
Social Friday.

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

## Maiatza

# 5-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Piano, zeharkako txirula, kantu eta gitarra kontzertua.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Etxarri Aranazko Musika Eskola.**

**Erkudengo Ama abesbatza.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 18:30ean Arbizuko elizan.

**Garabatos, Embajada eta Alerta Gorria.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. Pop-rock lehiaketako finala.

**Erokomeri.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

**Munduko musikak.** Maiatzaren 10ean, asteazkenean, 9:30ean Irurtzongo Atakondoa eskolan. Irurtzongo Musika Eskolako ikasleak.

### Antzerkia

**El secreto de Lilistrata.** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **aSanak Antzerki taldea.**

### Zinema

**El bar.** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 7an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.



**Motxilaren umea.** Maiatzaren 7an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Film pedagogikoaren mustutzea.

**Mañana empieza todo.** Maiatzaren 11n, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Gasteizko urtegia-Altsasu (103 km).** Maiatzaren 6an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bideko

lokomotoratik.

**Hirumugako gaina (48 km).** Maiatzaren 7an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**Josketa, lenteria eta ehozira.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 18:00etatik 21:00etara eta maiatzaren 7an, domekan, 11:00etatik 14:00etara, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Pintura.** Maiatzaren 7an, igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. **Ikastaroko ikasleen lanak.**

**Topaketa antzinako lanekin.** Maiatzaren 7ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ingurumena Altsasuko institutuan.** Maiatzaren 8tik 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Artisautzaren inguruan.** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Fermin Leizaola, Aranzadi zientzia elkarte.**

**Zer da ikasketa kooperatiboa?** Maiatzaren 10ean, asteazkenean, 15:30etik 17:30era Lakuntzako kultur etxean. **Irakasleendako aurkezpena.**

**Reynolds txirindulari taldearen**

**historia Irurtzunen.** Maiatzaren 11n, ostegunean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Hizlaria: Jose Migel Etxabarri zuzendari ohia.**

### Hizketaldiak

**eLe festa.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 12:30ean Altsasuko plazan. **Mintzodromoa eta hiztun berriei omenaldia.**

### Bertsolaritza

**Nafarroako Bertso Eskolen Eguna.** Maiatzaren 7an, igandean, 11:30ean Irurtzongo kultur etxean.

### Literatura

**El destino de Ana H. Murria.** Maiatzaren 8an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan. **Maita R. Otxotorena idazlearekin.**

### Tailerrak

**Aho bete amets.** Maiatzaren 6an, larunbatean, 10:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Osasunez zahartu.** Maiatzaren 8an eta 10ean, astelehen eta asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Etxarri Aranazko Ametsa jubilatu elkarte.

### Bestelakoak

**Erabaki fest.** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 17:00etatik aurrera Lakuntzako plazan.

**Arabiar kulturaren eguna.** Maiatzaren 7an, igandean, 11:00etatik 13:30era

Irurtzongo Foru plazan.

**Perthes gaitza dutenen familien topaketa.** Maiatzaren 7an, igandean, 11:00etatik Irurtzongo kultur etxean.

**Autokarabanen gunearen mustutzea.** Maiatzaren 7an, igandean, 12:30ean Uhartte Arakilgo Itxesia auzoan.

**Kulturartekotasun astea.** Maiatzaren 8tik 12ra, astelehenean ostiralera, goiz eta arratsaldean, Irurtzongo Atakondoa eskolan.

**Sakanako Hezkuntza Mahaiaren bilera.** Maiatzaren 9an, asteartean, 17:30ean Arbizuko Utzugan.

**Hatorrxu Rock batzarra.** Maiatzaren 9an, asteartean, 19:00etan Lakuntzako udaletxeko bilkura gelan.

**Ate irekien jardunaldia.** Maiatzaren 10ean, asteazkenean, Altsasuko Sakana Lanbide Heziketa institutuan.

### Deialdiak

**Ez diezazutela pentsiorik lapurtu!** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 12:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan. **Pentsionistak Martxan.**

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Centro Integrado Politécnico  
**FP SAKANA LH**  
Ikastetxe Integratu Politeknikoa



Tlfona: 948-564-815 WWW.ifpalsasua.net

**Izena emateko epea maiatzaren 8tik 15era:**

**Gol Mallan**

- **Mekatronika Industrial**

- **Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa**

**Ertain Mallan**

- **Mantenu Elektromekanikoa**

- **Soldadura eta Galdaragintza**

Gainera irakasten da:

- Zerbitzu Komertzialak (Oinarrizko LH)
- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak (EM)
- Eskaladan eta Mendi Ertainan
- Profesionaltasun Agiriak



**Maiatzak 10,  
ate irekietako  
jardunaldia**

## &gt;&gt; Altsasu

## Artisau azokaren 25. urteurrena dakar Alde Zaharreko festak

**Gaurtik domekara arte izanen dira ospakizunak.**

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako Alde Zaharreko Euskal Festaren muina gaur eta bihar izanen da. Nahiz eta aurretik hitzaldia eta euskalkia ikasteko jarduna egin. Bestetik, artisau azoka berreskuratu zela 25 urte beteko dira aurten. Industrializazioak estalitako garai bateko lanak eta ogibideak gogorarazteko asmoz abiatu zen azoka.

### Artisau azokaren urteurrena

25 urte beteko ditu domekan Altsasuko artisau azokak. Joan den mendeko 70. hamarkada hasieran Festa Euskaroen barruan hasi ziren artisau ogibideen azokarekin Altsasun. Zenbait edizioen ondoren 1976koa izan zen azkena. 16 urteko etenaren ondoren Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak azoka berreskuratu zuen 1992ko maiatzaren 3an. Aurretik, 1986an, plazan erakustaldi bat egon zen.

Goizez (12:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (17:00etatik 19:00etara) izan zen azoka. Egitaraua 11:00etako meza eta ondorengosoren bedeinkapenarekin hasi zen. Eguerdiko ezki la errepikaren ondoren hasi ziren artisauak lanean Ferialeku kalean. Dantzariak, txistulariak eta trikitilariak ere izan ziren. Altsasuko Udalak azokaren berreskurapenaren egunean herriko artisau beteranoren lanaren aitortza egin nahi izan zuen eta haiei edo euren seniedeei plaka bana eman zien. Lagun Onak elkarteak bere urteroko festa ospatu zuen eta txaranga izan zuen.



Belar-meta eraikitzen.

Honako artiasauek parte hartu zuten berreskurapenean: Patxi Mazkianan (orbel gurdia); Jorge Urteaga (uztarriak); Javier San Roman (ardi-motzailea); Juan Aranburu, Pako Guridi eta Juan Iparragirre (artilea kardatzen); Martin Uhalde (aizkoren eta aitzurren girtenak); Jose Luis Fernandez de Garaialde eta Josetxo Goikoetxea (sutegia); Juan Antonio Aranguiz (segak zorrozten); Julio Irigoien (koilareak); Nikanor Fernandez (gazta); Teresa Uria; Justa Oiarbide, Teresa Guridi, Rosa Agirrebengoa eta Juanita Mazkianan (taloak); Venancio Amillano (harria); Jose Antonio Olmos (zura); Maite de Miguel (zeramika). Denbora gutxi zen Altsasu Senpererekin senidetu zela eta hango ordezkariak Altsasun bisitan izan ziren zeramika piezekin.

### 1976ko azoka

Festa Euskaroen harira, Gure

Etxea elkarteak artisau azokak antolatu zituen 70eko hamarkada hasieran. Azkena, 1976ko artisau azoka harekin jende ugari bete zuen plaza. Azokaz aparte, egitarauan Otadiako ermitan egindako meza, ezki la errepika eta Bengoetxea zineman kontzertua izan zen: Iruñeko Ganbera Abesbatza, jotak, akordeoilariak eta zortzikoa.

1976ko azoka hartan honakoek parte hartu zuten: Francisca Arza, Justa Oiarbide, Gregoria Zelaia eta Antonia Zelaia (taloak); Sabina Goikoetxea, Luisa San Roman, Rosario Agirrebengoa eta Ageda Perkaz (liho lanketa); Damian Urteaga eta Jorge Urteaga (uztarriak); Francisco Mazkianan eta Jose Zufiaurre (sega pikatu); Jose Apestegia (isatsak); Martin Uhalde eta Migel Bengoetxea (aizkoren girtenak); Julio Irigoien (koilareak); Maximo Martinez (ipurukoak); Juan eta Jose Goikoetxea (sutegia); Fernando eta Jose Luis Fernandez de Garaialde (gurpilen hagunak); Nikanor Fernandez (ardiak jetzi); Jose San Roman (gazta egin); Santiago Albistur (gurterak egin zituen); Juan Aranburu (artilea kardatu); Juan Iparragirre eta Francisco Guridi (artilea irun) eta Juan Azurmendi (artilezko galtzetinak egin).

**+Azken orriko elkarrizketan**



ETXEKO BAZKARI ETA POSTREAK ENKARGU BIDEZ PRESTATZEN DIRA

Fernando Urkia kalea, 29 - Arbizu -

• 686 654 382 •  
• 666 616 303 •  
• 687 371 939 •

## &gt;&gt; Iturmendi

## Asteburuan, festen txanda



Astehenekoko maiatzaren jasotzearekin Iturmendiko kaleetan nahikoa animazio bazegoen; asteburuan errepikatu egingen da. Oraingoan Mikel Donearen omezezko festak ospatuko dituzte iturmendiarrek.

### Egitaraua

#### Maiatzak 5, ostirala

**19:30ean** Pintxo-potea Aritzagan, Aitzkozarren eta Gaztetxean.  
**21:30ean** Bokata-jana, gaztetxean.  
**23:00etan** Tximitxurri dj-a, gaztetxean.

#### Maiatzak 6, larunbata

**13:00etan** Herri jokoak plazan.  
**17:00etan** Pilota partiduak, frontoian.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
**00:30etatik 3:30era** Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
Ondoren gaupasa Aritzagan eta Gaztetxean!!!

\*Eguerdian eta arratsaldean auzatea enparantzan

### Egitaraua

#### Maiatzak 5, ostiala

**17:00etan** Haurren txokua, plazan.  
**18:30ean** Txokolate-jana.  
**19:00etan** Kontzentrazioa, plazan.  
**19:30ean** Pintxo-potia, gaztetxien.  
**20:00etan** Artisautzari buruzko hitzaldia, Iortia kultur gunean, Fermin Leizaola (Aranzadi zientzia elkarte)  
**21:00etan** Auzatea, gaztetxien.  
Gio, AGA caigo jokua.

#### Maiatzak 6, lanbata

**12:00etan** Auzatia, plazan.  
**12:30ean** eLe-festa. Euskal hiztun berriei aitortza eta mintzodromua, plazan.  
**12:30ean** Altsasuko erraldoi eta buruhandiak. Irteera Intxostiapuntatik.  
**13:30ean** Sega apustua, Baratzekobide belardian.  
**14:30ean** Herri bazkaia (plazan o kiroldegian, eguldian arabera). Trikiekin Burunda pilotalekura.  
**18:00etan** III. Bikotekako pilota goxua txapelketian finalak.  
**18:00etatik 21:00era** Josteta, lenteria eta ehaziri ikastaroen erakusketak, Gure Etxea eraikinean.  
**20:00etan** Elektro Txufiak kalejira.  
**22:00etan** Magrak, gaztetxien.  
**23:00etan** Erokomei taldearekin erromeria, gaztetxien.

#### Maiatzak 7, domeka

**10:00etan** Dianak Zangitu fanfarrea eta Txorongo Txarangarekin, Alde Zaharrean.  
**10:30etik 14:30era** Artisau azoka eta taloak, Foru plazan.  
**11:00etatik 14:00etara** Josteta, lenteria eta ehaziri ikastaroen erakusketak, Gure Etxea eraikinean.  
**13:30ean** Bildots zozketa.  
**17:30ean** Ludoteka eta gazte-txokoa plazara! (12 urtetik gorakoendako).  
**19:00etatik 21:00etara** Dantzaldia DuosoniZekin, Foru plazan.

#### Oharra

Larunbatean, Gartzia Ximenez kalea oinezkoendako izanen da, 12:00etatik 24:00etara.

### 1976ko filmazioa

Kunkunak zine amateur elkarteak 1976ko artisau azoka filmatu zuen. *Alsasua, folklore y tradición* lanaren hirugarren zatia osatu zuen artisau azokari buruzko atala. Super 8an filmatutako irudiak sarean ikusgai daude.

## 22 ogibide



Lentzeria eta ehaziri udal tailerretako kideak, Agustin Lopez de Zubiria (isatsak), Patxi Amillano (gazta), Jose Luis (saskigilea), Itziar Nazabal (pintura oihalean), Alvaro Garcia (zeramika), Bruno forjak (sutegia), Ion Dufurrenea (kaiquak), Rodolfo Rivero (uztarriak), Pedro A. Lazkoz Marin (harria), Juan Manuel Herrero (kilikiak, kiliki tailerra), Ramon Paniagua (momotxorroak), zura lantzeko

eskola (zur-lanketa), Alejandro Rellan (makilak), Carmelo Llana (pilotak), Iñaki Villanueva (zura), Asier Crespo (larrua), Cañamares anaiak (egurraren lanketa), Jesus Mari Olmos (zura), Vianako sokagileak (soka) eta Maite Ieregi, Arantza Asurabarrena, Mari Navaurre, Maripi Larrea, Juanita Mazkianan, Idoia Ganuza, Mari Jose Elizalde, Petri Garcia eta Belen Rubio (taloak).

**MANKA**

AHO BETE AMETS:  
HAUR POESIA LANTZEKO LANTEGIA  
YOLANDA ARRIETA IDAZLEAREN ESKUTIK

**GURASO, ZAINTZAILE, IRAKASLE, IRAKASLE-GAI, MONITORE ETA LIBURUTEGIKO ARDURADUNENDAKO.**

**MAIATZAREN 6AN LARUNBATAREKIN 10:00ETATIK 13:00ETARA ETXARRI ARANAZKO KULTUR ETXEAN.**

**GAURIZENA EMATEKO AZKEN EGUNA**

LANTEGIAN PARTE HARTU NAHI DUTENEK IZENA EMAN BEHARKO DUTE ALDEZ AURRETIK [euskara1@sekana-manka.eus](mailto:euskara1@sekana-manka.eus) HELBIDEAN. TOKIAK MUGATUAK IZANEN DIRA. MATRIKULA 10 EUROKOIA IZANEN DA. BERTARATZEN DIRENEK AHOZKO HAUR POESIAREN OMURAK ETA BALIABIDEAK EZAGUTUKO DITUZTE MODU PRAKTIKOAN. MATERIAL GAURKOTUA NON TOPATU ERE ERAKUTSIKO ZAIE.

ETXARRI ARANAZKO Udala



Aingeru Mikeo

# Euskal Herria, banden herria

**astekoa**

Joseba Sarrionaindiak, 'Lapur banden etika ala politika' liburuan, euskal gizartearen aldaketaren premia nabarmetzen du, zehazki, elkarren aurka aritzetik elkarlanean aritzeko jauzia egitea. Izan ere, historikoki, banden arteko borroka bortitza oso presente izan da Euskal Herrian. Erdi Aro osoan, Araban, gebararrak eta mendozarrak. Gipuzkoan, gan-

boarrak eta oinaztarrak. Bizkaian, abendañoarrak eta butroiarrak. Eta Nafarroan, agramondarrak eta beamondarrak. Lehenengoak Nafarroaren alde; bigarrenak Gaztelari begira. Azkenean, denak Gaztelaren mende. Geroago, karlistarrak eta liberalak, errepublikarrak eta frankistak, eta azkenik, ETAren eta Estatuaren artekoa. Makina bat heriotzeraginda.

Makina bat negar isurita.

Alabaina, ametsa ote Sarriren gogo? Zeren bandarik gabeko Euskal Herria utopia baitirudi. Nekez bilduko dira elkarrekin biktimak eta biktimarioak. Edo, euskal abertzalesutsuak eta espainiar patriota amorratuak. Edo, politikari boteretsu ustelak eta pentsiodun txirigizajotuak. Edo, bankari aberats handi-mandiak

eta langile xume prekararioak.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, aro berri honetan, 'biolentoak-ez biolentoak' diskurtsoa edo hitzaldia gaudituta, elkarriketa eta zubiak eraikitze gaitasuna balioetsiko da. Hortaz, kontua ez da izan bandak desagertzea, hitzaldian eta ekintzan garaitzea baizik. Horretarako, politika berria beharko da, zauriak orbain-

tzea, justizia soziala ziurtatzea eta burujabetza bermatzea oinarri izan behar dituena. Oraindik ez dut aldaketarik sumatu, baina Madril-en ari duen kaka ustel pilari eta Parisi begira egon beharrean, argi dago Euskal Herrietan irabazi behar dela etorkizuna.

Eta egiatan, Sarrionaindiaren liburua, oso gomendagarria.

## Hara zer dien

# Lanaren beste baldintzak

Aurreko astelehena, Maiatzaren Lehena, Langileen Nazioarteko Eguna zen eta aurten ere langileak eta sindikatuak atera dira haien aldarrikapenak eskatzera, lehenengo Maiatzaren Lehena egin zen bezala: egun hartan Ameriketako Estatu Batuetan greba orokorra hasi zen zortzi orduko lanaldia eskatzeko.

Badakigu aldarrikapen guztiak badutela bere oinarria: soldata duina, prekaritatearen desager-

pena, lanaldi osoa... baina hau esanda, foro honetara ekarpen bat ekarri nahi dut. Ez da nik hausnartutako zer baita, baizik eta Cristina Carrasco Bengoa ekonomistak, Bartzelonako Unibertsitatearen irakasleak eta ekonomia feministan ikertzaileak erakutsitakoa.

Astelehenean langileak ikusi genituen kaleetan. Baina, nondik sortzen dira langile hauek? Non hazi eta hezi dira? Nork zaintzen

ditu? Langile hauek egunero-egunero lanerako prest dira, emakumeek egunero-egunero bizitza mantentzeko egiten duten lan erraldoi ezkutuagatik. Eta oparaldi ekonomikoa eta krisia pasa eta gero, argi izan behar dugu aurreratzeko eta lan sistema aldatzeko, hau kontuan hartu behar dugula.

Cristina Carrascok hiru ideia eskaintzen dizkigu. Batetik, ekonomia merkatuaren mugetatik

kanpo oinarritzen da, hau da, ordaindu gabeko etxeko lanak ere ekonomia erantzun dira. Bigarrena, "zaintza" lanak dira; hitz honekin aipatu nahi ditugu etxekolanak, harreman emozional eta afektiboak jasotzea, balioak ikastea, atsedean hartzea, gaixotasunen zaintzea... azken finean denok elkarren menpe gaude bizitza osoan. Eta hirugarrena: hau guztia kontuan hartuta, bai ekonomian, bai giza garapen sos-

tengatuaren erdigunean jarri behar ditugu "zaintzak".

Aurreko Maiatzaren leheneko aldarrikapena zortzi orduko lanaldia izan zen, eguna hiru zatitan banatu ahal izateko asmoz: zortzi ordu lan egiteko, zortzi ordu atsedena izateko eta beste zortzi ordu jardura publikoetan (bakoitzak nahi dituenetan) ibiltzeko. Gaur konturatu gara hau ez dela posible, batez ere emakumeentzat; beraz, ez da ezer aldatuko lan sistema berrantolatzen ez badugu. Kontuan izan, Carrascok esaten duen moduan, "sistema kapitalistak etxeetako lanaren beharra duela, irau ahal izateko".

**Emakumeen Bilgunea**

## barrutik kanpora

# Errepikatzen ez utzi

Oier Gomez eta bere ingurukoak pairatzen ari diren muturreko egoera ezin da berriz errepikatzen utzi eta, horrenbestez, ezinbestekoa da gaixorik dauden preso askatasuna eta gaitzuzteko presoak lehenbailehen Euskal Herrira ekartzea. Egundari dauden 12 euskal presoak kalean egon beharko lukete Oier bezala, euren eritasuna duinta-

sun osoz tratatzeko eskubide osoarekin. Ezin da Oier Gomez gertatu zaiona berriz errepikatzen utzi eta, horretarako, presoan afera desblokeatzeko garaia da, larri eri diren presoak askatzeko garaia da.

Begi onez hartzen dugu Oier Gomezaren aurkako zigorraren ezeztapena zein euroaginduak bertan behera geratzea, baina

irmoki azpimarratzen dugu Oier ez diotela ezer oparitu. Minbizia oso larria du preso gasteiztarrak, sei hilabeteko bizi itxaropena eman diote eta momentu honetan Oier bakarrik aurkitzen da, urrutiratua. Bakarrak bere eritasunaren aurka borrokatuko. Egoera honen aurrean, Oier bere senideengatik hurbil egon daitekeen ospitale baten izatea eta

tratamendua duintasun osoz jasotzea exijitzen dugu.

Bide horretan, ongi baloratu behar da frantziar epaitegiek euroaginduen kasuan eta zigorraren ezeztapenean kontuan hartu dituzten argudioak. Ebazpen horiek emateko Euskal Herrian ireki den aro berria azpimarratzen dute, ETA erakundearen armagabetzea eta, baita, Euskal Herriko gizarte zibilaren aldarri nagusiak. Euskal gizarteak bake prozesua muturreraino eramatea erabaki duen momentuan, itxaropenari ateak zabalduz, ezin dugu inolaz gehiago errepikatzen utzi Oier Gomez eta bere seni-

de eta lagunek pairatzen ari diren sufrikarioa.

Gertu-gertutik bizi izan dugu Sakanan egoera hori, duela 24 urte Pello Mariñelarena eritasun larri bat izanda soilik hil zorian zegoela atera baitzuten espetxetik ospitale batera. Urtero bezala, heldu den asteburuan Pello gogoratzeko ekitaldia eginen dugu, eta aukera ezin hobea izan dugu eskatzeko eri dauden euskal preso guztiak berandu baino lehen etxean izan daitezten.

Berriz gerta ez dadin, etxean eta bizirik nahi ditugu!

**Sakanako ETXERAT**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea

eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko:

Foru plaza, 23, 1 Altsasu;  
gutunak@guaixe.eus edo  
948 564 275 telefonoa.

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**KOLABORATZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso

**ZUZENTZAILEA:** Miren Alonso

**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea •

gk@gkomunikazioa.eus

**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995

**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**



**Nafarroako Gobernu**  
Gobierno de Navarra

**172 EGUN PRESO:** Horiexek dira Altsasuko ferietako liskarragatik auzipetutako hiru gaztek espetxean daramaten denbora. Altsasuko Gurasoak herenegun Iruñean hez-

kuntza arloko eragileen babesa izan zuten. Auzia Nafarroara bueltatzea eta preso daudenak askatzea aldarrikatu zuten.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Euskara hiztun berriak omentzera gonbidatuak gaude

**Bihar, 12:30ean Altsasuko Foru plazan eLe festa ospatuko da, euskara hiztun berriei omenaldia eta mintzodromoa**

Sakanako euskal hiztun berriak eta mintzakideak omentzeko aurreneko esperientzian, joan den urtean, ehun pertsona elkartu eta gero, bueltan da eLe festa. Sakanako AEK-k, Mintzakide programak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuko dute, eLe festa. Biharko ekitaldian ibarreko euskal hiztun berri eta Mintzakiden luze aritu diren sakandarrak omenduko dituzte. 10 guztira (omendu gehiago zeuden, baina ezin zuten egon).

Horrela, Sakanako euskaldunen komunitatea zabaltzeko eta handitzeko egin duten ahalegina aitortu nahi zaie, eta opari batekin saritu. Opari hori, aurretik euskaldundutako sakandar batzuek

emanen diete, horrela ibarreko euskaldunen komunitatera hiztun berrien etorrerak etenik ez duela irudikatuz. Omenaldiaren ondorengo mintzodromoan izanen da hori, elkarri hitz eginez, elkarri euskara oparitzen. Hala, hiztun berriek euskarazko komunitateko kide berriak ezagutu eta haiekin praktikatzeko eta haien babesa jasotzeko aukera aparta izanen dute. Gainera, gurasoak direnek ez dute aitzakiarik izanen, haien txikiak haurrendako txokotan ongi zainduak izanen direlako. Omenaldi-ospakizunari bukaera emateko, auzatea egingen da.

### Izenaz

Hitzaren sinonimoak dira elea eta berba. L maiuskula, berriz, ibilgailuaren gida baimena ateratu berri duten gidarien autoetan ikus dai-



Mintzodromoan iazko eLe festan.

teke. L horrek gidari horiek praktikatzen hasi berriak direla adierazten die errepidean diren gainerakoei. Euskaldunen bide berri- sarta diren hiztun berriak, praktikatzen hasi diren horiek dira, hain zuzen ere, eLe festaren

ardatza. Izan ere, praktika eta ospakizuna uztartzen ditu ekitaldi horrek, euskal hiztun berri horiek erdigunean jarritz. Euskara praktikatu eta bizi Sakanan! leloarekin, euskal hiztun berri horien ahalegina aitortu eta eus-

kal hiztunen komunitatera ongietorria emanen zaie.

Ospakizuna Altsasuko Gazte Asanbladak antolatzen duen Euskal Festaren barruan izanen da. Hartan Guaixe Fundazioa, Altsasuko Udala eta Aizpea euskara elkartaren laguntza izan dute antolatzaileek. Guztiek ere larunbateko omenaldira joateko gonbidapena egiten die altsasuar eta sakandar guztiei.

## Bazkaria

eLe festa baliatuz Sakanako Mintzakide programatik parte-hartzaile guztiei bazkaltzeko gonbidapena egin zitzaion. 20 bat altsasuar Zubiondo elkarte bazkaltzera elkartuko dira bihar.

## Irurtzun

# Arabiar Kulturaren Egunarekin hasiko da kulturartekoatasun astea

**Igandean, 11:00etatik 13:30era Irurtzongo Foru plazan arabiar kulturako erakustaldia izanen da. Asteazkenean Atakondoa eskolan kontinente guztien barnako bidaia egingen dute eta, heldu den larunbatean, Munduko Arrozekin despidituko da astea**

Irurtzongo arabiar komunitateak antolatutako Arabiar Kulturaren Egunarekin hasiko da kulturartekoatasun astea. Irurtzongo plazan arabiar musikarekin, jakiekin, hennarekin, tearekin, jantziekin, argazkiekin, jolasekin, arabiar moduko saloiarekin eta bestelakoekin gozatzeko aukera izanen da igandean, 11:00etatik 13:30era. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekoatasun Zerbitzuko Bego Zestau Baraibarrek esan digunez, "arabiar komunitateak eskertu nahi du ongi hartuak izan direla eta, horregatik, gonbidapena luzatu dute".

### Kulturartekoatasun eskolan

Heldu den astekeko egun bakoitzako kontinente bati eskainia izanen da Irurtzongo Atakondoa eskolan. Silvia Sanchez zuzendariak azaldu digunez, "aniztasunaz hitz egingen dugu musika ardatz hartuta". Sandra Aiarra ikasketaburua gaineratu duenez, "erakusketa txiki bat egingen da, tailerren bat egingen da eta kontinente bakoitzekoak diren gurasoak haien jantzien edo ohituraren inguruko azalpenak ikasleei ematera etorriko dira". Astelehenean Asiaz ariko dira; asteartean Afrikaz; asteazkenean Ozeanian; ostegunean, Amerikaz eta, azkenik, ostiralean, Europaz.

Egunero ordu erdi inguru izanen dira kontinentez gehiago jakiteko. Taldeka. Haietakoren bat ere azalpenak ematea ez du baztertzen Sanchezek. Zestauk jakinarazi duenez, migrazioen txokoa ere presta-



Sandra Aiarra (ikasketaburua), Maider Ruiz (Gizarte Zerbitzuak), Abdelaziz Missaoui (islamiar komunitateko presidentea), Silvia Sanchez (zuzendaria), Bego Zestau (Anitzartean), Sanou Faye (parte-hartzailea) eta Nahia Urkia (Anitzartean).

tuko dutela eskolan. 497 ikasleek euren familia jatorriari buruzko informazioa eramanen du eskolara eta hori hainbat mapatan jarriko dute. Gainera, egunero etxera oroigarri bateramanen dute. Eskolan egindako hainbat ekarpen gero Munduko Arrozak ekimenean ikusgai izanen dira.

Goizean umeak badira kontinentetako giza paisaiaren nondik norakoak ezagutuko dituztenak,

arratsaldean, 15:30etik 17:00etara, gurasoen solasaldi irekien txanda izanen da. Egunero gai bat landuko da. Hala, emakumea eta dantza astelehenean izanen da. Emakumea eta musika, berriz, asteartean. Gaiaz hitz egiteko emakume batzuk gonbidatu dituzte. Ostegunean, Vendetako Pellok kontzertua eskainiko die. Eta, gurasoen solasaldiak munduko jakiez hitz eginez despidituko dira ostiralean.

## Munduko musikak

Ozeaniako irurtzurdar berririk ez da eskolan. Hala ere, instrumentuak, apaingarriak eta beste lortu dituzte. Baina hutsunea Irurtzongo Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertuarekin beteko dute. Haien asteazkeneko gitarrak munduko musikaz bete izanen da.

**asi**  
arreta eta orientazio  
psikologikorako zentrua

**Arantxa Sueskun Igoa**  
**PSIKOLOGOA**  
**PSIKOTERAPEUTA**  
Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, behea  
31800 - Altsasu (Nafarroa)  
669 367 422

**nereacnoz**  
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak  
(Nafarroako Unibersitatea)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

info@nereacnoz.com  
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

**MAPFRE** Altsasu

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

## » Irurtzun

**Perthes gaitza dutenen familien topaketa****Igandean, 11:00etatik aurrera, kultur etxean**

Perthes gaitza duen kideren baten familien elkarteak, Asfapek, familien topaketa antolatu du. Perthes gaitza jendartean ezagutarazi, elkar-terko kideen artean iritziak eta esperientziak trukatzeko baliagarria izan nahi du topaketak. Perthes edota Legg-Calvé-Perthes gaitza jasaten duten haurrei izterrezurraren bururaren batean odol jariora ez zaie iristen eta, hortaz, hezur horretako zelulak hil egiten dira, horren ondorioz higadura gertatzen da. 3 urte eta 14 urte artean diagnostikatzen da, eta mutikoetan ohikoagoa izaten da.

**Egitaraua**

**11:00etatik 11:30era** Harrera eta izen ematea.  
**11:30etik 12:00etara** Asfape elkartearen aurkezpena.  
**12:00ean** Ama baten ponentzia.  
**12:15ean** Perthes izan zuen gazte baten ponentzia.  
**13:00etatik 14:00etara** Solasaldia.  
**14:00etan** Bazkaria.

Oharra: haurrendako txokoa izanen da.

## » Uharte Arakil

**Autokarabanendako gunea igandean mustuko da**

Tximeleta autokarabana elkarte kideek Uharte Arakilen urteroko batzarra eginen dute eta hori baliatuz asteburuko egonaldia eginen dute. 50 bat autokarabana elkarteaz espero da horretarako propio Itxesi auzoan prestatutako gunean. Eta erabiltzaileen elkarte bertan dela baliatuta, Uharte Arakilgo Udalak gunea mustutzea erabaki du.

**Egitaraua****Maiatzak 5, ostirala**  
19:30ean Pintxo potea.**Maiatzak 6, larunbata**

**10:00etan** Tximeleta autokarabana elkartearen batzarra, elkartearen.  
**11:00etan** Zamartzera bisita.  
**14:30ean** Bazkaria, Itxesi.

**Maiatzak 7, igandea**

**10:00etan** Mendi irteera, San Bartolome ermita eta errotaria ezagutzeko.

## » Etxarri Aranatz

**Maiatza, ti-ta, gora**

300dik gora ikusleren aurrean, 15 bat etxarriarrek jaso zuten maizta. 12:50ean hasi ziren lanean. Luzera desberdineko metalezko sei euskarriz baliatu ziren lana egiteko. Pago enborrak 45 gradu baino gehiago marraztuak zituzten, ongi ahoratuta zegoen enborra bulkada bakar batean zuloan sartu eta zutituta gelditu zen Haritzabalen. 16 minutu inguru behar izan zituzten lanak egiteko. Aurretik, jakina, aldameneko pagadian moztu zuten enborra eta bizkar gainean 600 bat metrotan eraman behar izan zuten.

## » Iturmendi

**Ordu bateko lana**

Arrano Beltza plazaren erdian 26 metro luzeko maizta zutik da astelehenez geroztik. Kintoek pago enborra Aitzondotik herrira ekartzeaz eta zuritzeaz arduratu ziren. Pagoak, berez, 26 metro luze zituen, baina basoan 4 metroko zatia kendu zioten. Behin plazan zegoela,

beste metro bat kendu zioten, makurra zegoelako. 21 metro luzeko pagoari 5 metroko pinua lotu zioten muturrean eta 60 bat iturmendiaren artean jaso zuten. Lana ongi egiteko lasaitasunez hartu zuten, ordu batean maizta zutitza lortuz.

## » Altsasu

**Errepika, maiatzeko gurutzetik irailera**

Elizako ezkila-dorretik Altsasu gutzirako sintonia zabaltzen hasi dira eguerdiko. Atzo, maiatzaren 3an hasi eta maiatzaren 14an despedi-

tukoda. Aurreneko errepika beti luzeagoa izaten da eta 18 minutu aritu ziren Asier Beramendi, Jesus Irisarri, Iñaki Bengoetxea, Angel Aldasoro eta Enrike Zelaia. Ezkila txikiak joz Jon Etxaiz eta Pedro Jimenez aritu ziren. Guztiak, txandaka.

## » Bakaiku

**Behar bezala, maizta, zutik**

Maiatza jaso aurretik, beroaldi eder-rra hartu behar izan zuten bakaikuarrek. Pagadian sartu, basozainak seinaleztatutako pagoa moztu eta hura 600 metrotan baino gehia-

gotan eraman behar izan zuten. Eguedian jasotzeko lanak eginak hasiak zituzten. Ipar-mendebaleko haize xuabearen kontra eginez, bakaikuarrek euren egitekoa egin zuten.

## » Ziordia

**Baten faltan, bi maizta**

Ziordiarrek lan bikoitza hartu zuten astelehenean eta bi maizta jaso zituzten. Aurrenekoa txipudian jaso zuten, 10:30 aldera. Hango lanak despeditu eta gero, eguerdian barga gainekoan jaso zuten maizta. 70 ziordiarretik gora elkartu ziren han. Egitekoak eginda, herri bazkarian elkartu ziren ziordiarrek Errekakartea elkartearen. 130

izan ziren mahaiaren bueltan eserizirenak. Ateratako diru auto istripu baten ondoren Kuban erreabilitazioa egiten ari den Luisitoren dako izan zen. Arrazoia zein zen jakinda, beste 40 pertsonen bazkariko txartela pagatu baina ez ziren joan. Bazkariaren antolatzailerak erantzunarekin oso pozik daudela esan digute.

» **Klinikako koadroa udaletxeko sarrearako**

Arte-terapia saioetan parte hartu zuten joan den urtean Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko eguneko zentroko sei eta kanpo kontsultetako hiru erabiltzaile. Saioengidaria Hele-

na Santano Cid arte-terapeuta altsasuarra izan zen. Erabiltzaileen lane-kin Oroimenaren begirada arte-terapiaren ikuspuntutik izenburua duen

erakusketa prestatu zen, Iruñeko arte eskolan eta Altsasuko lortia kultur gunean ikusgai izan zena. Santanok Altsasuko Udalariren erakusketa osatzen zuten koadroetako bat oparitu dio.

**Ostiralero**  
**SAIOA**  
**9:30ean**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

**Asteleheneetik ostegunera**  
**Metropoli forala**  
**9:00etatik 11:00etara**

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Castillo Suarez, Mainamikirri liburuaz
- Altsasuko EH Bildu Euskara Batzordearen lehendakaritza utzi
- Irurtzango kulturartekotasun astearen aurkezpena

107.3 FM  
**beleixe**  
 www.guaixe.eus-en ON LINE

## SAKANA

## Ikasketa duala eskainiko du Lanbide Heziketak heldu den ikasturtean

**Fabrikazio mekanikoaren ekoizpenaren programazio goi mailako prestakuntza duala izanen da**

Sakanako Plan Estrategikoko (SPE) industria arloko aurtengo lehentasunezko erronketako bat mekanizatuaren prestakuntza duala sustatzea zen. Eta lortu da. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du Altsasuko Sakana Lanbide Heziketa institutuak Fabrikazio mekanikoaren ekoizpenaren programazio goi mailako prestakuntza duala eskainiko duela 2017-2018 ikasturtean. Izen ematea hilaren 8tik 15era egonen da zabalik.

Sakanako Garapen Agentziako industria eta zerbitzu teknikari Odei Arregi Aizpitartek ibarreko industriaren metalaren eraldaketa prozesu mota guztiak egiten dituzten lantegi eta enpresa duen presentzia handia gogorazi du. Eta

gaztigatu: “enpresa askotan belau-naldi aldaketa izaten ari da eta metalaren eraldaketan ezagutza duten, zehazki mekanizatuaren formatuak dauden, langileen eskaria gora egiten ari da”. Hori kontuan izanik, Sakana Lanbide Heziketa institutuak trebakuntza emateko azpiegiturak eta gaitasun teknikoak badituela kontuan izanik, “arazo horri konponbiderik egokiena emateko Sakanako Garapen Agentziaren koordinaziopean ibarreko ekonomia eragileak aritu dira”.

### Prestakuntza duala

Enpresek, ikastetxeek, Lanbide Heziketa institutuak, Nafar Lansarek, Hezkuntza Departamentuko prestakuntza zuzendariak eta Sakanako Enpresariaren Elkarteak adosturik, prestakuntza behar hori asetzeko modurik egokiena

prestakuntza duala ikusi dute. Arregik dioenez, “metodo dualean ikasleek jasotako prestakuntza enpresen beharretara oso modu eraginkorrean egokitzea posible egiten du. Gainera, ikaslea etengabe enprekin kontaktuan egoteaz aparte, eta lan esparruan mugitzea zer den lehen pertsona bizitzeko aukera ematen du. Azken finean, prestakuntza osoagoa”.

Ibarrean prestakuntza dualaren beharra benetakoa zela adierazteko interesa zuten Sakanako enpresek konpromisogutuna sinatu zuten. Idatziz jasoa gelditu zen mekanizatuaren prestakuntza dualen parte hartuko zutela, eta “apustuak” enpresa horien laguntza eta konpromisoa izanen zituela. Hezkuntza Departamentuak baiezkoa eman ondoren, heldu den astean zabalitzen den matriku-



Lanbide heziketako ikasleak atsedendaldian. ARTXIBOA

lazio garaian Sakanako eta inguruko gazteriaren erantzuna espero dute, “sakandarrek horrelako aukera ezin baitute galdu, ezta inguruko eskualdeetatik etorri daitezkeen ikasleek ere”.

Sustatzaileek eskaintza berriak ibarreko ikasleak kanpora ikastera joan beharrik ez izatea ekarriko duela espero dute. Arregirendako, “zalantzarik gabe, ezaugarri berezilea katea osatzea

da, ikastetxeetatik hasiz, Lanbide Heziketa institutuan segituz eta bertako enpresetan lanean bukatuz; giza kapitala, ezagutza eta lana ibarrean geratzea bermatuz, hain zuzen ere, Sakana bat eginaz”. Izan ere, “etorkizun oparo bat eraikitzeke borrokan, elkar-lana ezinbestekoa da. Sakanan, elkarlan puntu hori, Sakanako Plan Estrategikoa 2020ean biltzen da.”



### Lan istripua Urban

Pagoa mozten ari zela adar bat gainera erori eta 56 urteko Burlatako gizonezkoa larri zauritu zen Urban asteartean. Larrialdi zerbitzuek gaztigua 9:25 aldera jaso zuten. Ezbeharraren lekura mediku-erizainak, suhiltzaileak eta foruzainak joan ziren. Buruan kolpe handia zuen eta zauria ahoan. Ereduak ebakuzio-arako erraztasunik ematen ez zenez, zauritua helikopteroz Iruñeko ospitalegunera eraman zuten. Foruzainoak ikertu zuen ezbeharrak.

### Altsasu



### Lapurreta kamioi aparkalekuan

**Larunbatetik domekarako gauetan bost kamioien bateriak eta baten karga lapurtu zuten**

Kaltetuek domekan bertan Foruzaingoan jarri zuten salaketa. Eta astelehenean Javier Ollo Martinez alkatearekin elkartu ziren. Bilera horretan alkateari hainbat eskaera egin zituzten: kamioi aparkalekuan segurtasun neurriak handitzea, atea aldatzea, argiztapena hobetzea eta zaintzarokamerak jartzea. Ez dalapurrek kamioien aparkalekua bisitatzen duten aurrenekoaldia: 2010eko maiatzean kamioi burua, atoa eta kamioi osoa lapurtu zituzten eta 2013an, berriz, altzairu erdoilgaitzeko 17 tona zituen kamioia lapurtu zuten.

59 plaza

Baina 23 besterik ez daude beteta. Gidariak baja eman eta industrialdeen segurtasuna bilatzen ari dira.

## Turismo sektoreak Sakanako Donejakue bidea ezagut dezan

**izena emateko bidelagun@sakana@gmail.com e-postara idatzi beharra dago hilaren 10a baino lehen. Bidelaguneko kideendako doan, bestela 20 euro ordaindu beharko dute**



Sakanako Donejakue Bidearen historia eta puntu interesgarriak ezagutzera eman eta, bide batez, Aralar eta Zamartzeko monastegiei buruz gehiago jakiteko ikastaroa. Horixe da turismo sektoreko profesionalei zuzenduta Bidelagunek, Sakana turismo elkarteak, antolatu duen ikastaroa. Uharteko Arakilgo Zamartze monastegian izanen dira saioak, maiatzeko hurrengo ostegunetan (11n, 18an eta 25ean), 18:00etatik 19:30era. Nicolas Arbizu eta Mikel Gartzandia izanen dira hizlariak.

## Altsasuk ardi latxari buruzko jardunaldia hartuko du

**Asteartean izanen da, 10:30etik aurrera, lortia kultur gunean**

Esnetarako Ardi Latxako Dinamizazio Plana garatzeko aurreneko Lan Jardunaldia egingen da Altsasun. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilari Isabel Elizaldekin esan duenez, “sektore eragile guztiak prozesu parte-hartzaile eta lankidetzakoa hasteko helburua” dute. Asmo horrekin Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza elkar lanean ariko direla iragarri du, “esne ardiaren sektorea mantendu eta garatzearen alde egiten dugu, gure lurraldeendako hain garrantzitsua izanik, ikuspegi ekonomikotik zen sozialetik eta ingurumenetik”.

Altsasuko jardunaldiak “elkarrekin lan egiteko aukera emanen digula, sektorearen egoera ezagu-



tzeko eta diagnostikatzeko, eta sektore estraterikoko horren etorkizuna bermatzeko planteamenduak egiteko” balioko duela uste du Elizaldekin. Jardunaldian sektorearen arlo guztiak aztertzeke seilatan mahaiosatu dira: ekoizpena; eraldaketa; komertzializazioa; baliokatea, mar-

jinen banaketa; ekinzailetza, belau-naldi errelebo eta emakumeak sektorean eta kalitate markak. Erronkari eta Idiazabal jatorri izendapenei buruzko hausnarketa sektoriala egingen dute. Bukatzeko, aurrera eman beharreko pausoak zehaztuko dituzte.

Zelai 27, 2. esk.  
Altsasu  
948 563 029



Modeling  
Body System



Mila esker gure gorputz tratamenduengan konfiantza izateagatik

Zuen gorputzarekin bat datorren silueta lortzeagatik poztasuna adierazten diguzue.

Zure silueta birmoldatzen laguntzen dizugu

## » Altsasu

## EH Bilduk Euskara Batzordearen lehendakaritza utziko du



Altsasuko EH Bilduko kideak prentsurrekoan.

**koalizioak ardura uztea erabaki du "Udalak euskararekiko hartu duen jarrera salatzen"**

Altsasuko EH Bilduko udal taldeak bere bozeramaile Arantza Bengoetxearen bidez jakinarazi du

Haizea Ramirez de Aldak Euskara Batzordearen lehendakaritza utziko duela. Bengoetxeak azaldu duenez, "Euskara Batzordean hasiera batean eskaintako konfiantza praktikan ukatu egin digu

alkatetzak". Udalak Euskara Batzordearen lehendakariaren irizpideen kontrako erabakiak hartu dituela argudiatu dute EH Bildutik.

Horren adibide gisa aurtengo Plantilla Organikoan egin berri diren aldaketak jarri dituzte. Erabaki horrekin "euskararen normalizazioan atzerapauso handia" eman dela uste dute koalizioan. Koaliziotik salatu dutenez, "batzordeko lehendakariaren bizkarrean ere hartu dira akordioak hainbat unetan". Bestalde, Geroa Baik "proposamena egiteko eta adosteko garaian EH Bildurekin ez du kontatu, zuzenean beste alderdiekin egin ditu akordioak (PSN batez ere)". Bengoetxeak esan duenez, "hori larria eta salagarria iruditzen zaigu. Zergatik utzi Euskara Batzordea

EH Bilduren esku gurekin adosteko asmorik ez bazuen?"

Alkatetzaren jarrera "ulergaitza" egiten zaiela nabarmendu dute. Eta Euskara Batzordean "ematen den egoera ezin dugu onartu. Ezindugulehendakaritzan egon udalak euskararen normalizazioaren kontrako erabakiak hartzen dituen bitartean". Lehendakaritza utzita ere, "altsasuarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen normalizazioa lortzeko lan egiten jarraituko dugu".

**Hiru lehendakaritza**

Hauteskunde ondorengo hizketalarien ondoren alkateak EH Bilduren esku Euskara, Emakumea eta Berdintasuna eta Gizarte Ongizate Batzordeen lehendakaritza utzi zuen.

## » Etxarri Aranatz

## "Egunero izan behar da elkartasun eguna"



Elkartasun eguneko manifestazioaren akaberan antolatzaileek adierazizuten, "gure artean tirabirak sortzen dituen gehiago edo gutxiago eskatu behar ote dugun eztabaida antzuetan denbora eta indarrak galtzeko langhegi daukagu". Presoak eta iheslariak etxeratzen hiru arlotan lan egin beharra dagoela nabarmendu zuten. Arlo politikoan "botere eta erabaki guneetan gero eta indar gehiago izateko". Gizarte arloan, "euskaral preso eta iheslarien etxeratzearen aldera gero eta gizarte-eragile gehiago erakartzeko". Eta, azkenik, lege arloa, "salbuespeneko epaitegi, epaile eta epaia behin betiko desgerrartzeko".

ETAren armagabetze prozesuak erakutsitakoa nabarmendu zuten: "helburu baten inguruan borondatea, adostasuna eta batasuna jarritz gero, euskal gizarte geldiezin da. Batasuna izanez gero gizartearen erabakimena da tresnarik eragin korrena, eta gure helburuak hor dirau, inoiz baino eskuragarriago".

Preso eta iheslarien aldeko elkartasuna antolatzera deitu zuten, "haien aldeko indarrak metatzera". Larunbatean azaldu zuten, "presoei eta iheslariet dagokie haien etorkizuna erabakitzea. Helduak eta ausartak izan ziren ihesegitera eta kartzelara eramantzen bidea hartzeko, eta helduak eta ausartak izanen dira duintasun osoz etxera ekarriko dituen bidea erabakitzeko".

**Kartzela eta umeen errealitateari buruzko filma ikusgai**

Etxarri Aranazko Sare herritarrak *Motxilaren umea* pedagogia-filmaren mustutzea antolatu du. Proiektioak bi zati ditu. Aurrenekoak, 11 urteko haur baten, Mainerren, eta 700 km-tara preso dagoen bere amaren arteko harremana kontatzen du. Espetxera aitonaekin egindako bidaia horietako bat hain zuzen ere. Bere lagunendako Mainerrek bidai berri bat egin behar duenaren seinale da motxila, ezingo dela asteburu horretan beraiekin jolasean aritu, edo eta etxeko lanak ere egiteko aukerarik ez duela izanen ulertarazten diena. Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. +www.guaixe.eus

## » Geroa Baik EH Bilduk hartutako erabakiarekin ados ez egonda ere errespetatzen du

**"Hala ere, ez dugu onartuko euskara politikoki erabiltzea alderdien artean ika-mikak sortzeko. Euskarak ez du merezi. Garrantzitsuena da otsailatik udalak Plantilla Organikoa eta aurrekontuak onartuak dituela, beste askotan baino askoz lehenago"**

EH Bilduk Euskara Batzordearen lehendakaritza utzteko erabakia errespetatzen dutela adierazi dute Geroa Baik, nahizeta "emandiren arrazoiekin ez gauden batere ados". Javier Olo Martinez alkateak emandako arrazoiekin ados ez dau

delagaineratu du: "hainbat alditan azaldu dugu 2017. urteko Plantilla Organikoan udal obra zerbitzuko hizkuntza profiletan egindako aldaketa. Herritarrekin kontaktu zuzena ez duten lanpostuak dira". Idazkaritzaren txostenaren esana ere ekarri du gogora alkateak: "ez da Altsasuko Udalaren eta herritarren arteko euskarazko erlazioa urratzen". Eta gogorarazi du EH Bilduezik gainontzeko alderdi guztiak aldaketaren alde agertu zirela.

Alkateak obra zerbitzuan urte erdiz lan egiteko zortzi langile kontratazioaren adibidea jarri du, zeinetan euskara meritua zen. "Aurkeztutako pertsona guztiatik soilik hamarrek egin zuten euskarazko proba. Horrek azaltzen du zein den Altsasuko egoera soziolinguistikoa. Bide batez, udaleko alderdi guztiak ados zeuden euskara meritua izateko". Bestetik, aurrekontuetatik kanpo gelditu dira herriko ikastetxeek eskolaz

kanpoko euskarazko ekitaldiak egiteko diru-saila. Hori zuzentzeko emendakina aurkeztu zuen EH Bilduk. Alkateak gogorarazi duenez, "emendakin horren inguruan Kontu-hartzailearen txostenak aipatzen zuen emendakin hori ezin zela onartu beste emendakin batzuk onartzen baziren. Hala ere, bai osoko bilkuran bai bilera pribatuan partida hori sartzeko gure borondate politikoa azaldu dugu".

## » Altsasu

## Errefuxiatu eremuetarako jaki bilketa



Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) Greziako hainbat errefuxiatu eremuetan sukaldeak muntatu eta migratzaile eta errefuxiatuei jaten emateaz arduratzen da. Sorterritik Europara ihesi etorri diren pertsona horiei egunero gosaria, bazkaria eta afora eman ahal izateko jaki ugari behar da. Horre-

gatik, astelehenean hasi eta hurrengo hiru hilabeteetan jakiak bilduko dira Altsasun. Zehazki, Frontoiaren Zeharbidearen 14. zenbakian, udal etxeak duen bajaran. Olioa, lekale edo barazki kontserbak, arrain kontserbak, pasta, esnea eta halakoak astegunetan 11:00etatik 13:00etara eman daitezke.

## » Etxarri Aranatz

## Beilatokiaren kokapen protestaren data aldaketa



Izarra beilatokiaren kokapenarekin ados ez dauden etxarriarrak protestekin jarraituko dutela jakinarazi dute. Beilatokiaren kokapen egoikiago posible dela aldarrikatu izan dute igande eguerditan, baina joan

den astetik ostiralero egiten ari dira kontzentrazioa. *Beilatokia toki egokian, nahi izanez gero posible da* pankarta haren parean zabalduko dute, ostiralero, 19:00etatik 19:45era.

## » Irurtzun / Arakil / SAKANA

## Prebentzio tailerra: gaztetxoak eta drogen kontsumoa

LHko 5. eta 6. mailan eta DBHn seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako tailerra antolatu du Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Atakondako guraso elkartearekin batera.

Nerabezaroa eta drogen kontsumoaren prebentzioa tailerra eskolan izanen da, maiatzeko asteartean (9, 16, 23 eta 30ean), 15:30etik 17:00etara. Saioen gidaria Pakita Mateos izanen da. Lau saioretan honako gaiak landuko dira: nerabezaroa eta drogen erabilera; nerabezaroan drogen kontsumoen prebentzioan arauak duten garrantzia;

familiaren jarrera drogen aurrean. Nola jokatu seme-alaben lehenengo kontsumoen aurrean eta heziketa, prebentzioa da.

**Hezkuntza Mahaiaren bilera**

Asteartean, 17:30ean, Arbizuko Utzaganen

Sakanako Hezkuntza Mahaiak landuko dituenak: ibarrak dituen baliabideak ezagutzera eman eta ikasleendako bisitak antolatzeko behar duten aholkularitza emanen da. Bestalde, ibarreko produktuen ekoizle-akeuren eskaintzak aurkeztuko dituzte eta eskoletara lotura egiten saiatuko dira. Ikasleek baso zati baten eraldaketari proiektua azalduko da.



**MENDI LASTERKETAK:**

**BASQUE ULTRA SERIES, SAKANAN:** Gaurtik igandera bitartean Basque Ultra Trail Series Zirkuituko 2. proba jokatu da,

Gasteiztik aterata Iruñean despedituko dena (130 km). Arabatik Sakanara sartuko da eta Berain gainditu beharko dute.

**Sokatira**

## Andra Mari, Nafarroako Sokatira Txapelketara



Andra Mariiko herri kirol taldekoak, tartean soka tiratzaileak.

**Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketako kadeteen mailan lehiatuko da Etxarri Aranazko Andra Mari taldea**

Asteburu honetan Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketa hasiko da, larunbatean, maiatzaren 6an, Lesakan, 17:00etan.

Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketan ariko den talde sakandar bakarra Andra Mari izango da. Ikastolako taldea kadeteen (280 kilo) kategorian lehiatuko da, ondoko taldeekin: Berriozar, Araxes, Basaburua A eta Basaburua B. Izenak

dioen bezala, lau tiratzailez osatutako taldeak izango dira lehiatuko direnak. Lau jardunaldi eta finala jokatu dira liga sistema bidez. Berdinketa egotekotan, berdinketa haustea azken jardunaldian eginen litzake. Finala lehenengo bisailkatuek jokatu dute.

Lehen jardunaldia larunbatean jokatu da, Lesakan, bigarrena maiatzaren 13an, Antsoainen, hirugarrena maiatzaren 20an, Larrainzarren eta laugarrena edo finala maiatzaren 27an, Berriozarren.

**Areto futbola**

## Historia egitera



Errege Koparako ekipazioa aurkeztu zuten ostegunean.

**Magna Gurpea Xotak Errege Kopako finala jokatu du bihar Guadalajaran, El Pozo Murciaren kontra**

Magna Gurpea Xotak historia egiteko aukera du. Izan ere, bihar, larunbatean, 20:15ean Errege Kopako finala jokatu du Guadalajaran, El Pozo Murciaren kontra. Irurtzongo taldeak lehenengo lortu du Errege Kopako finalerako sailkatzea, orain arte final laurdenetatik aurreraez baituegin. Eta kopa ekaritzea, zalantzarik gabe, mundiala

litzateke Imanol Arregi teknikari irurtzundarraren taldearendako.

**Ibilbide bikaina**

Magna Gurpea Xotak 1998an lortu zuen orduko lehen mailara, Ohorezko Mailara igotzea. Orduetik maila gorenari eutsi dio taldeak, 19 denboralditan. Talde txikia izanda, ibilbide bikaina egin du. Lehen mailan daramatzen 19 denboraldietan 12 aldiz sailkatu da ligako titulua jokatzeko play-offe-

tarako. Play offetan, bitan finalereditara iritsi zen -2004-2005 eta 2015-2016- eta behin final handia jokatu zuen, El Pozoren kontra, 2009-2010 denboraldian. Tamalez, finaleko laugarren partidan kanporatu zuen El Pozok. Bestalde, Espainiako Kopan 12 aldiz lehiatu da talde berdea.

Bihar Magna Gurpea Kopa ekarri nahi du etxera. Ea El Pozo irabazteko gai diren Imanol Arregiren mutilak. Nafarrek marea berdea izango dute alde, 1.300 zale bertaratuko baitira taldea animatzera. Irurtzongo autobusa Irurtzongo kiroldegitik abiatuko da, larunbatean bertan, 14:45ean.

**Ligan bosgarrenak**

Asteburuan jokatu zen Lehen Mailako ligako azken jardunaldia eta Peñiscolak 4 eta 1 irabazi zion talde berdeari. Movistar Inter izan da lehena (75 puntu) eta Magna Gurpea 5.a (51 puntu). Ligako titulua erabakitzeke play offak maiatzaren 12an hasiko dira. Talde berdeak Jaen izango du aurkari.

**Pilota**

## Irurtzongo Txapelketa

Asteburuko emaitzak

**Ostiralean:****PROMESAK:**

Landa-Lorea **5** / Ruiz de Larramendi-Ruiz de Larramendi **22**  
Gil-Garatea **22** / Gurrea-Ruiz **14**

**Larunbatean:****PROMESAK:**

Cordon-Andueza **22** / Arce-Aizpuru **5**

**SENIORRAK:**

Mediavilla-Medel **16** / Adonis-Aranguren **22**

**Pilota**

## Txapeldunak erabakitzeke final handiya Altsasun

**III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak larunbatean jokatu dira, 17:30ean, Altsasuko Burunda Pilotalekuan**

Altsasuko Alde Zaharren festen barruan, bihar, larunbatean, Altsasuko Gazte Asanbladak Pilotajaukuren laguntzarekin antolatutako III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako final handiak jokatu dira, 17:30etik aurrera, Burunda pilotalekuan. Martxoan hasi zen txapelketa eta astebururo giro ede-

rra izan da frontoian; harrera bikaina dauka txapelketa honek.

Bada, giro hori beroago izango da biharko finaleran. Trikitixek giroa alaituko dute, eta, horretaz gain, apustuak egiteko aukera izango dute pilota zaleek. Adur, Oihan eta Jokin gogoan, "Adur, Oihan eta Jokin frontona!" leloa zabalduko dute frontoian. Bukarera, txapeldunek sariak jasoko dituzte.



Alegria eta Gartzandia finalistak.

### III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak

**Larunbatean, 17:30ean, Altsasuko Burunda pilotalekuan:**

**3. maila:**

Galarza-Mintegi / Alegria-Gartzandia

**2. maila:**

Gereñu-Tuero / Aiestaran-Beloki

**1. maila:**

Senar-Alustiza / Lopez de Zubiria-Gartzandia

**Mendi lasterketak**

## Korrikalari sakandarrek atsedetik ez

Asteburuan hainbat mendi lasterketa jokatu dira. Larunbatean XIII. Izarritzko mendi lasterketa (20 km) 87 korrikalari osatu zuten eta Aritz Kortabarra arrasatearra gailendu zen (1:59:11). Ander Unzurrunzaga Ganboa etxarriarra 34.a iritsi zen helmugara (2:22:32). Egun berean Bidaurretako mendi lasterketan aritu ziren korrikalari sakandarrak. Victor Amatriain (1:10:22) eta Izaskun Sanzek (1:35:54) irabazitako proban, Fran Araña arbizuarra 17.a sailkatu zen (1:25:17), Luis Aretalakuntzarra 71.a (1:41:49) eta Maria Goikoetxea etxarriarra 101.a (1:50:20).

Bukatzeko, igandean Zarautzen jokatu tako Pagoeta mendi lasterketan (21 km) 178 korrikalari klasifikatu ziren, Andreu Simon buru zela (1:33:26). Aritz Igeltz lakuntzarra 24.a sartu zen (1:51:33) eta Iñaki Lacalle olaztiarra 109.a (2:11:06).

**Pilota**

**Yanira Aristorena etxarriarra eta Haizea Zamora trinketeko paleta argentinarreko maila nagusiko txapeldunak izan ziren.**

Asteburuan Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko pilota selekzioen arteko txapelketako finalak jokatu ziren. Nafarroako pilota selekzioak ezker paretako frontoiko txapelketa irabazi zuen (112 puntu); aldiz, trinkete txapeldunorde izatearekin

konformatu behar izan zuen (63 puntu), Iparraldeko selekzioa izan baitzen txapelduna (65 puntu).

GRAVNIko txapela bat Sakanara etorri zen, trinketeko paleta argentinarreko emakumezkoen maila nagusiko finalean, Nafarroako Yanira Aristorena etxarriarra eta Haizea Zamora Iparraldeko Amestoyri eta Mariscori 14 eta 30 irabazi baitzieten.

**Automobilismoa**

## Irurtzongo slaloma

**Mariñelarena eta Aramendia txapeldun**

Igandean Nafarroako Slalom Opendeko bigarren proba jokatu zen Irurtzunen, Irurtzongo Larrazpi Gazte Elkarteak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatuta. Pilotuek euren abilezia erakutsi zuten, Akaborron bildutako jendetzaren

aurrean. Turismoen mailan Carlos Mariñelarena gailendu zen (BMW 325I), 1:55.870 denborarekin. Mikel Orderiz izan zen bigarrena, 3 segundora eta Eneko Corcuera hirugarrena, 4 segundora. Eta monoplaiza mailan Jorge Aramendiak ez zuen areriorik izan.

**Pilota**  
**Promozioko finalerdia: Bakaikoa vs Gorka**

Bihar, Beotibarren, 17:30ean  
Buruz Buruko Promozioko finalerdia jokatu dira bihar Tolosan. Batetik, Joanes Bakaikoa etxarriarrak Gorka izango du arerio eta, beste finalerdian, Arteaga II.a eta Peña II.a ariko dira nor baino nor.

**Duatloia**  
**Mikel Astiz laugarrena Bianan**

III. Bianako Printzerria Duatloian podiumetik gertu geratu zen Ihabarkoa

Sakandarrak III. Bianako Printzerria Duatloian

1. Ibai Alba:	2:08:01
4. Mikel Astiz (Saltoki):	2:14:10
13. Fco. Javier Gomez (Sak):	2:19:38
21. Gorka Garcia de Eulate (Sak):	2:25:04
22. Javier Borrega (Sak):	2:25:05
33. Isidro Asurabarrena (Sak):	2:28:47
42. Iñaki Alvaro (Sak):	2:31:31
65. Juan Carlos Gomez (Sak):	2:38:59

Igandean 100 duatletek osatu zuten III. Bianako Printzerria Duatloia. Ibai Alba gailendu zen (2:08:01). Saltoki Trikideak taldeko Mikel Astiz ihabardarra podiuma zapatzean egon zen, laugarrena iritsi baitzen helmugara (2:14:10). Sakana Triatlói Taldeko kideek ere lan polita egin zuten.

**NAHIA IMAZ TXAPELDUNA BASABURUAN**

Larunbatean III. Basaburuako Duatloia jokatu zen, Nafar Kirol Jolasen txapelketarako baliagarria. Emakumezkoen haurren mailan Sakana Triatlói Taldeko Nahia Imaz izan zen txapeladuna (40:25).

**Futbola**  
**Hasi da I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketa**

Asteburuan hasi zen Ziordiko Udalak hainbat babeslerekin antolatutako Ziordiko Futbol 5 Txapelketa. Lehen jardunaldian 4 partida jokatzea aurreikusten zen baina, azkenean bi jokatu ziren, instalazioetan hainbat lan bukatzen ari zirelako. Atzeratutako partidak maiatzaren 20an edo 21ean jokatu dira. Hurrengo jardunaldia maiatzaren 13tik 14ra bitarteko asteburuan jokatu da.

**Ziordiko Futbol 5 Txapelketa**  
**2. jardunaldia (maiatzak 13-14): Ziordia - Leones del Atlas Futsal Sakana - Aralar Mendi Dia Ibaia - Ingenieria Iradi Los Suaves - Auzomotojorik**

Ziordiko 1. jardunaldiko emaitzak  
Futsal Sakana 5 / Leones del Atlas 5  
Los Suaves 2 / Ziordia 9  
Ingenierias Iradi / Auzomotojorik Ez (atzeratuta)  
Aralar Mendi / Dia Ibaia (atzeratuta)

**Kiroldegia**  
**Martxan dira Irurtzun 2017 Kirol Jardunaldiak**



2016ko jardunaldietako mahai ingurua. ARTXIBOA

**Atzo hasi ziren eta maiatzaren 13ra bitartean hitzaldiak, dokumentalak, proiektzioak, ibilbideak, herri kirolak eta beste izanen dira**

Irurtzungo Udaleko Kirol Batzordeak eta Irurtzungo kirol taldeek Irurtzun 2017 Kirol Jardunaldiak antolatu dituzte. Atzo hasi ziren, Irurtzun eta Lekunberriko osasun-zentroko Javier Oreja, Migel Angel Senosiain eta Mikel Moreno medikuekin "Kirola eta osasuna" lelopean burututako hitzaldiz solasaldiarekin eta maiatzaren 13an despedituko dira, Irurtzungo inguruetan burutuko den bizikleta ibilbide batekin eta Irurtzungo taldeen arteko herri kirol probarekin.

probarekin.

**Zabaleta, Martija, Etxeberri eta beste**

Gaur Irurtzungo Pilota Eskolako entrenamenduan parte hartuko dute Jose Javier Zabaleta pilotari etxarrendarrak eta Julen Martija pilotari etxeberriarrak. Ostegunean, aldiz, historian atzera egingo dute eta Jose Migel Etxebarri, garai bateko Reynolds taldeko zuzendariak, Reynolds taldearen historia ekarriko du. Hurrengo astebururako, dokumentalak, proiektzioak, irteerak eta herri kirol lehiak antolatu dira.

**Automobilismoa**

**Palacios eta Lopez de Goikoetxea bikain Arnedillon**



Iban Lopez de Goikoetxea, Arnedilloko igoeran. AVM PELI

Igandean VII. Arnedilloko mendi igoera jokatu zen, Errioxa eta Nafarroako Txapelketetarako lehen proba puntuagarria. Parte hartu zuten 32 taldeetatik 28k lortu zuten bukatzea. Eguraldi nahasiarekin, gurpilen aukeraketak buruhauste handia eragin zien gidariei.

Arkaitz Ordoki (BRC B-49) izan zen azkarrena (2:53). Sakana Motorsportekoak bikain aritu ziren: Iker Palacios lakuntzarra (BRC Evo5) sailkapen orokorrean, scratchean, bosgarrena sailkatu zen (3:12) eta laugarrena izan zen CM mailan. Postu bat beherago, Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra (Renault 5 Turbo) 6.a sailkatu zen (3:15), bigarrena turismoetan eta lehena Formula Librean. Eta, bukatzeko, Iñigo Zelaia (BMW 325) 25.a sailkatu zen scratchean (3:51)

eta 8.a Formula Librean.

**Goñi eta Aribe 15.ak VI. Lea-Artibai Rally gogorren**

VI. Lea-Artibai Rallya gogorra izan da. 95 ibilgailuetatik soilik 43k lortu zuten proba despeditzea. Azkarrenak Euskadi Racing taldeko Aingeru Castro eta Alaitz Urkiola (BMW M3) izan ziren (1:17:47). Sakana Motorsport taldeko Garikoitz Goñi etxeberriarra eta Iñaki Arive (Renault Clio Sport) 15. postuan sailkatu ziren (1:26:42), Clase 4 mailan bigarrenak eta Nafarroako Txapelketan bigarrenak. Iker Askargortak kopilotu lanak egin zituen Isaak Zurbanorekin -27.ak sailkatu ziren- eta Aitor Fernandezek ere kopilotu lanak egin zituen Aitor Baltasarrekin -35.ak sailkatu ziren (1:43:13)-.

**Irurtzun 2017 Kirol Jardunaldiak. Egitaraua**

- Maiatzak 5, ostirala, 18:00etan, Kultur Etxean:**
- Irurtzungo Pilota Eskolako entrenamendua, Jose Javier Zabaleta eta Julen Martija pilotariekin.**
- Maiatzak 11, osteguna, 20:00etan, Kultur Etxean:**
- Hitzaldia: "Reynolds txirrindularitza taldearen historia Irurtzunen". Hitzalaria: Jose Migel Etxebarri, Reynolds taldeko zuzendari ohia.**
- Maiatzak 12, ostirala, 20:00etan, Kultur Etxean:**

**Dokumentala: "Pilotariak".** Ondoren solasaldia Daniel Burgi Eguzkiza eta Andres Salaberri, dokumentaleko zuzendariekin eta Palako Munduko txapeldunaden Maite Ruiz de Laramendi pilotariarekin. Segidan, 2017ko Sakanako Ibilaldien proiektzioa.

**Maiatzak 13, larunbata**

- 11:00etan, Foruen plazan: "Bizikleta irteera Irurtzungo inguruetan". 14 km-ko ibilbidea: Irurtzun-Izurdia-Ga-Urritzola-Ekai-Zuhatzu-Satrustegi-Itxasperi-Irurtzun (www.rlive.cc/7view/890083804)**
- 18:00etan, Foruen plazan: Herri Kirolak, mistoa, Irurtzungo taldeen artean: Gazte Asanblada, Larrazpi, Piku-xar, Erga Larreak, Guan, Bajerak...**

**Txirrindularitza**



Igor Arrieta, taldekideekin, Aralarrendako talde onenaren saria jasotzen.

**San Prudentzio saria Igor Arrietarendako**

Asteburu bikaina izan da Aralar Txirrindularitza Taldearendako. Izan ere, junior mailako Josu Etxeberriaren garaipenari, Igor Arrietak larunbatean Respaldizan lortutako garaipena gehitu behar baitzaio. Esprintean irabazi zuen Arrietak (1:14:12), Burundako Quesos Albenizko Unai Aznarrenaurretik. Gainontzeko txirrindulari sakandarrek ere maila bikaina eman zuten. Aitor Alberdi (I.I.) 5.a sartu zen, Iker Mintegi (Q.A.) 9.a, Urko Gorriti (I.I.) 10.a eta Inhar Astiz (I.I.) 13.a. Aralar izan zen talde onena. Eta astelehenean, Amurrión, Irabiako Aitor Alberdi hirugarrena sailkatu zen, Urko Gorriti laugarrena, Unai Villalobos 9.a, Igor Arrieta 12.a, Iker Mintegi 15.a eta Inhar Astiz 20.a. Gehiago: www.guaixe.eus

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA**

**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

28. JARDUNALDIA  
**LAGUN ARTEA 0 - URROZTARRA 0**  
**ETXARRI ARANATZ 1 - BURLADES 2**  
Lagun Arteak eta Urrozarrak jokatuak partida oso lehiatua izan zen. Erasoak baino, defendatzen ibili ziren bi taldeak. Hala ere, aukera gehiago sortu zituzten lakuntzarrek, baina Pinillosek bikain zaindu zuen Urrozarrakoen atea. Azkenean, partida husnako berdinketarekin despeditu zen. Bestalde, Burladesen kontra etxean galdutako egin zuen Etxarri Aranatzek. Burlades lehen minuturako aurreratu zen, jokoan kanpoko polemika tarteko. Eta bigarren gola sartu zuten 15. minutuan. 2. zatian Unai gola sartu egin zuen eta markagailuan gerturatu zen Etxarri; Burladesek ongi eutsi zion eta 3 puntuei eustea lortu zuten Burladakoen. Lagun Arteak hirugarren postuan, promozio postuetan sailkatzeko aukera du oraindik.

Sailkapena >>

1. Bidezarra .....	65 p
6. Lagun Arteak .....	40 p
9. Etxarri Aranatz .....	36 p

**Asteburuko jardunaldia**

**BURLADES - LAGUN ARTEA** (Larunbatean, 16:00etan, Erripagainan)  
**BERRIOZAR - ETXARRI ARANATZ** (Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)

**ERREGIONAL MAILA. KOPA**  
**ERREGIONALEKO KOPAKO FINAL ZORTZIRENAK**

**ALTSASU 8 - IDOIA 0**  
Erregionaleko Kopako final zortzirenei ongi ekin zion Idoiak, baina Altsasu euren erresistentzia gaitzeko gai izan zen eta lehen golaren ondoren, hortik aurrera gol festa ederra ospatu zuten gorritxoek Dantzalekun. Joseba Lizarraga (2), Eneko, Paulette, Patxi Letona, Nabil, Xabi Mazkian eta Mikel Cordero izan ziren golegileak. Horrela, altsasuarren final laurdenetarako sailkatu dira.

**Kopako final laurdenak (joaneko partida)**

**CALATRAVA - ALTSASU** (Igandean, 17:00etan, Fiteron)

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**

**25. JARDUNALDIA**

**ALTSASU** atsedean jardunaldia du.

Sailkapena >>

1. Osasuna .....	64 p
12. Altsasu .....	19 p

**Asteburuko jardunaldia**

**IRUNTXIKI BERIAIN - ALTSASU** (Larunbatean, 16:00etan, Beriainen)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**

**27. JARDUNALDIA**

**ZALDUA 1 - ELOMENDI 1**

Sailkapena >>

1. Unziti .....	66 p
4. Zaldua .....	53 p

**Asteburuko jardunaldia**

**ROKA - ZALDUA** (Larunbatean, Unzuen)

**Areto futbola**

**Sakanako Futbol Topaketak**

**Benjaminen azken saioa, Ziordian**

Benjaminen Sakanako Futbol Topaketan 10. eta azken jardunaldia izango da jokoan etzi Ziordian.

**Sakanako Futbol Topaketak. Benjaminen 10. jardunaldia**

**Igandean, Ziordian.**  
**10:00etan:** Urdiain - Txartel  
**10:50ean:** Sutegi - Seguros Sayas  
**11:40ean:** Lagun Arteak 1 - Etxarri  
**12:30ean:** Immerplastik - Lagun Arteak A

Mendia

# 1.203 mendizale Sakanako Ibilaldian

586 mendizalek parte hartu zuten Ibilaldi Handian (54 km), 427 mendizalek Ibilaldi Motzean (27,6 km) eta 190 mendizalek Ibilaldi Txikian (14 km)

Iratxoelkarreak hainbat babesleeta entitatekin babesarekin antolatutako Sakanako Ibilaldia arrakastatsua izan zen beste behin. Aurretik 800 mendizale zeuden izena emanda, baina egunean bertan inskripzioa egin zutenak gehituta, azkenean 1.203 mendizalek parte hartu zuten larunbateko Sakanako Ibilaldian. Iratxokoa mendi ibilaldi ez lehiakorra da. Ibilaldi Luzea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan sartua dago eta Ibilaldi Motza, aldiz, Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituan.

Goizeko 6:00etan abiatu ziren Ibilaldi Luzearen hautua egin zuten 586 mendizaleak. 54 km eta 3.388 m-ko desnibel positiboa zuten aurretik. Txurregi igo ondoren, Beriainera iritsi ziren, handik Uharte Arakilerajaitsi, jarraian Aralarko San Migel igotzeko eta Atarantz aurrera eginez, Agiritik pasa ziren, Erdi Aroko herri hustuko aztarnetatik. Ondoren, Madotz, Larrazpil pasa

zituzten, eta Ergako Trinitatea igo eta jaitsi ondoren, Irurtzungo helmugara iritsi ziren.

Ibilbide Motza aukeratu zuten 427 mendizaleak goizeko 7:30ean abiatu ziren. 27,6 km eta 1.344 metroko desnibel positiboa osatu behar izan zuten. Urrirozlatik Gaztelura igo ziren, Ekaitik jaitsi ziren eta Itxasperi pasa eta gero, Goldaratz eta Latasa aldera egin zuten, Arrantzaleen xendatik barna Irurtzunerara heltzeko.

Bukatzeko, eta gaztetxoetan mendizaletasuna sustatzeko asmoz, Ibilaldi Txikia antolatu zuten (14 km, 736 m-ko desnibela). 190 mendizalek parte hartu zuten. Trinitatera igo ziren, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen xendatik Irurtzunerara iritsi ziren. Atakondoa eskolako Gurasoen Elkartekoak izan ziren ibilbide txiki honen motore nagusiak.

Mendizaleak kontentu zeuden eta ibilbidearen antolakuntza bikaina eta Sakanako parajeen edertasuna azpimarratu zituzten. Guztia ongi ateratzeko 70 pertsona inguru aritu ziren antolakuntza lanetan.

Beste behin, mendizaletasunaren festa handia izan zen Sakanako



Sakanako Ibilaldiko arduradun Pello Alzuetak adierazi digunez, guztia ongi joan zen. "Ez zen aparteko arazorik gertatu, eguraldiak lagundu zuen eta guztia ongi antolatzeko gai izan ginenez". Mila pertsona pasarendako hornidura prestatuta zuten, eta 1.203 izanda, egunean bertan jaki gehiago erosi behar izan zituzten. "Baina guztia ongi kontrolatuta, inolako arazorik gabe". Hori bai, kamiseta gehiago enkargatu behar izan zituzten, eta jaso ahala helaraziko dizkiete falta zaizkienei.

ko Ibilaldia. Antolakuntzak guztia txukun-txukun uzteko ahalegin handia egin zuen, betiko modura.

### ETB1eko Gailurra martxanekoak bertan izan ziren

ETB1eko kamarak Sakanako Ibilaldian izan ziren. Irati Andak Ibi-

laldi Luzea egin zuen eta Andoni Aizpuruk Ibilaldi Motza. Ibilbidean hainbat mendizale eta kirolari izan zituzten lagun. Adierazi zuten, maiatzaren hirugarren asteko ostegunean emitituko dute Sakanako Ibilaldiko saioa, maiatzaren 18an.

Txirindularitza



## Josu Etxeberriak juniorreko palmaresa estreinatu du

Igandean Lizarrako proba irabazi zuten Intersport Irabiako iturmendiarrak

Aralarko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberriak junior mailako bere lehen garaipena lortu zuen igandean Lizarran. Helmugan besoak jasotzen lehena izan zen, esprintestuan. Ailetz Lasa ziordiarra (Burunda, Qesos Albeniz) 5.a sartu zen. Aurreko egunean II. Amurrioko Saria jokatu zuten juniorrek, E.H. Txapelketarako baliagarria, eta Etxeberria 9.a eta Ailetz Lasa 14.a sailkatu ziren.

Bukatzeko, maiatzaren 1ean, Lacturale Junior 2017 Trofeoa jokatu zen Etxeberrin. Helmugara bi txirindulari iritsi ziren, eta esprintean, Toyota Armentiako Ibon Ruiz gailendu zitzaion Josu Etxeberriari. Lehen urteko juniorren sailkapenean lehena izan zen Iturmendikoa. Ailetz Lasa 11.a sartu zen. Gainontzeko sakan-darrek ere lan polita egin zuten aipatu probatan. Gehiago: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Irristaketa

# Irristalari sakandarrak dominez lepo

Ioseba Fernandezek urrezko bi, Unai Villalobosek urrezko bat eta brontzezko bi, Ander Chamorrok zilarrezko bi eta Cristina Aldeanok brontzezko bat lortu zituzten

Asteburuan Nafarroako Irristaketa Zirkuituko Abiadura Txapelketak jokatu dira Iruñeko Antoniuttin. Sakanako irristalariak lan bikaina egin dute eta makina bat domina lortu dituzte.

### Dominak

Ioseba Fernandez iturmendiarrak, gizonezkoen senior mailan, bi urrezko domina jantzi zituen, bat 100 m

esprintean eta 435 m esprintean bestea. Cristina Aldeano altsasuarra, emakumezkoen senior mailan, brontzezko domina lortu zuen 100 m esprintean. Hiru dominarekin itzuli zen Unai Villalobos altsasuarra, gizonezkoen jubenilen mailan. Urrezkoa jantzi zuen 20.000 m kanporaketan eta brontzezkoa 100 m esprint eta 435 m esprintean. Eta Ander Chamorrok zilarrezko bi domina ekarri zituen, gizonezkoen jubenil mailan 100 m esprintean bigarrena eta 435 m esprintean bigarrena sailkatu eta gero.



Saritu sakandarrak, euren dominekin. UTZITAKOIA

## Sakana, Txantrean



Maiatzaren 1ean Txantrea Irristaketa Trofeoa jokatu zen. Bertan aritu ziren Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak eta lan polita egin zuten. Emakumezkoen mini mailan Enara Perez 3.a sailkatu zen, gizonezkoen mini mailan Gaizka Flores 3.a, aurrebenjaminen gizonezkoetan Jon Urkizar 3.a eta emakumezkoen benjamin mailan Iratxe Lapuentek irabazi zuten.

Herri kirolak

# 225 ikasle Herri Kirol Topaketan

Mank-ek antolatuta, Uharte Arakilgo Larrebieta pilotalekuan burutu da topaketa

Urteromoduan, Sakanako Mankomunitateak ikastetxe arteko Herri Kirol Topaketa antolatu du. Aurretik Uharte Arakilgo Larrebieta pilotalekuak hartu zuen ekimena, asteazkenean. Topaketa zabalteko, Kañamares anaiek trontza eta aizkora erakustaldia egin zuten eta ondoren hasi zen Herri Kirol Topaketa. Bertan Lehen Hezkuntzako 6. mailako Sakanako ikaste-

txe guztietako ikasleek parte hartu zuten. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak adierazi digunez, guztira 225 neska-mutiko aritu ziren eta 18 irakasle, guztia antolatzen laguntzen.

Ikastetxe guztietako ikasle guztiak nahastuz, taldeak sortu zituzten eta herri kirol proba konbinatuetan lehiatu ziren guztiak, gainontzekoen animuak lagun. Txingak, zaku lasterketa, koxkolak, giza-plaza eta sokatiran lehiatu ziren. Ekimen honetan ez da sail-



Ikasle sakandarrak, koxkolen proba hasteko zain.

kapenik egiten eta ez dago txapel-dunik. Helburua gaztetxoengan

herri kirolak sustatzea da, jai giroa bulkatzea eta Sakanako ikastetxe

ezberdinetako ikasleen arteko harremana sustatzea.

# 40 tanatorios IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
www.tanatoriosirache.es



**Anttoni Aldasoro**  
**Milagros Artieda**  
**Jose Ramon Anso**  
**Jorge Ijurko**  
**Iñaki Orce**

Beti gogoan.  
**59ko kintoak**



**Jose Ignacio Reparaz Lizarraga**

Bihotzez eta bihotzetik anaia, osaba:  
indarra eta kemena zurea;  
etsipenari bizkarrez aurrera,  
miresten zaitugunon eredugarri zara.  
Maite zaitugu.

**Etxekoak**

Lizarragabengoa, 2017ko apirilaren 29a



**Juan Jose Urrestarazu Irigoien**

Ur goiena  
ur barrena,  
etxe honetan sar daiena  
bakearekin osasuna.

**Zure koadrila**



**Justo de la Cueva Alonso**

(Margari Ayestaran Aranazen alarguna)

Iruñean hil zen 2017ko apirilaren 27an, 79 urte zituela. Bere seme-alabek, Zuzen eta Zuriñe; suhiak, Oscar Corroza; bilobak, Garazi. Bere bizitza, obra eta militantziaren aldeko oroitzapena aldarrikatzen dute.

**GORA GU TA GUTARROK**

“Goraintziak, komunistok, hilobitrik”



**Juan Jose Urrestarazu Irigoien**

Juanjo,  
beti gure bihotzean.

**Hamarrendaiko lagunak**  
Urdiainen, 2017ko maiatzaren 1ean



**Juan Jose Urrestarazu Irigoien**

Eskerrik asko, bihotzez, momentu latz hauetan  
gure ondoan egon zareten guztiei.

**Mª Jesus eta Iñigo**

**Justo De la Cueva Alonso**

Bi Ahizpakoarekin ez zinen anaitu  
PSOeren bideak lotsarazten zaitu.  
Hona etorri zinen borrokan jarraitu.  
Nahiz adinak zaituen indarrez garaitu,  
zure borroka ez da zurekin amaitu.



**Maribel Lopez Iturbe**

Nola denbora ez den alferrik igaro  
zure irria ez da guretzat abaro.  
Su artean ibili zineten luzaro,  
Komando Cocina zen bromatik harago  
borroka elikatzeko modu bat gehiago.



#### JAIOTZAK

- **Aitor Atutxa Madoz**, martxoaren 28an Etxarri Aranatzan.
- **Jurdan Igoa Santano**, apirilaren 29an Etxarri Aranatzan.
- **Mohammed Ali**, apirilaren 29an Etxarri Aranatzan.
- **Alaa Mouddin**, apirilaren 28an Etxarri Aranatzan.
- **Yasmin Ben El Mokadem**, maiatzaren 1ean Altsasun.

#### HERIOTZAK

- **Francisco Vicente Galbete**, apirilaren 19an Olaztin.
- **Ely Escudero Muñoz**, apirilaren 27an Olaztin.
- **Juana Lasa Elso**, apirilaren 27an Lizarragan.
- **Juan Jose Urrestarazu Irigoien**, maiatzaren 2an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

guaixe.iragarkilaburrak.com

**HARREMANETARAKO**: 948-56 42 75 emaila: iragarki@guaixe.es

#### HIGIEZINAK

##### LOKALA

**Kafetegi bat alokatzen da Altsasun.**  
Interesatuak hots egin dezatela 666 268 222 telefonora.

#### LANA | NEGOZIOAK

##### LAN ESKAINTZAK

**Landa hoteleko langilea.** Jatetxe eta harrerarako neska bat behar dugu ostiral, larunbata eta igandeetarako (ez finkoak). Euskalduna eta ingelera jakitea beharrezkoak. Hoteleko harreraren esperientzia izatea ez da beharrezkoa. Arratsaldeko lanaldia betetzeko beharko genuke, baina malgutasuna eskatzen dugu. Urritikoa bazara, lan egunetan hotelean gelditzeko aukera ere

eskainiko da. Bidali zure Curriculumua naiara@hotelolatztea.com

#### Urdiango igerilekuetan soroslea

**behar da.** Lan horietan aritzeko sorosle titulua, D.E.S.A. ziurtagiria behar da. Interesatuak maiatzak 25a baino lehen, aitziberelkarteak@gmail.com-era bidali CV.

#### IKASTAROKAK

**Osasunez zahartzeko.** Zahartzeko aktibo eta osasungarria duten 60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako tailerra. Etxarri Aranazko Gure Ametsa jubilatuen elkartearen izan da, maiatzaren 3an, 4an, 8an eta 10ean 17:00etatik 19:00etara.

**Zer da ikasketa kooperatiboa?**

Irakasleendako prestakuntza, euskaraz. Maiatzaren 10ean, 15:30etik 17:30era Lakuntzako kultur etxean. Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza atala.

**Excel. Altsasun, dohain.** 20 ordu. Erdi maila. Lehentasuna langileek izanen dute. Maiatzaren 22tik 31ra, 17:00-19:30. Izen-ematea www.tiss.es edo 948 23 53 99.

#### CC. Digitala eta sare sozialak.

Altsasun, dohain. 20 ordu. Lehentasuna langileek izanen dute. Ekainaren 1etik 8ra, 16:30-20:00. Izen-ematea www.tiss.es edo 948 23 53 99.

#### IBILGAILUAK

##### SALDU

**Deuchfar traktorra.** Bigarren eskuko, atoi eta lurra lantzeko makineriarekin saltzen da. Tel 948 57 63 84.

#### SALDU

**Arko izozkailua salgai.** Luzera 1,5 metro, oso gutxi erabili dugu eta oso egokira onean da. Tel 618 096 204.

#### OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

**Betaurreko progresiboak galdu ditut.** Unanu eta Beriain mendiaren artean. Funda beltz batean sartuta zeuden. Tel 626 56 24 41.

#### OHARRAK

**Otaiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokiaren edo herriko banku eta kutxetan zabalduzako kontuetan sartu daitezke.

**Liburu aurkezpena.** El destino de Ana H. Murria liburua aurkeztuko du Maite R. Otxotorenak maiatzaren 8an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan.

**Odol-emaileak.** Altsasu: maiatzaren 16an, 17an eta 18an, 17:00-20:30, eta 19an 9:30-13:00.

**ERKUDENGO AMA ABESBATZA ARBIZUN:** Bihar, 18:30ean, Arbizuko elizan kontzertua eskainiko du. Pasa den larunbatean Tarragonan aritu ziren altsasuarrak kantatzen.

kultura >>

## Mainamikirri, Altsasuko ipuina bertakoendako

Castillo Suarezek, Josemari Morcillok eta Enara Insaustik ipuin tradizionala liburu bihurtu dute

Erkuden Ruiz Barroso

**M**ainamikirri ipuin altsasuarra paperera eraman dute Castillo Suarezek, Josemari Morcillo Morkotsek eta Enara Insaustik. Castillo Suarezek ipuina ahozkotik idatzira pasa du. “Mainamikirri oso pertsonai karismatikoa da eta bizirik dagoen ipuina da”, dio Suarezek. Hirurek batera Fanietorri argitalpena zibilua sortu dute ipuina autoedizioan argiratzeko. Ostiraleanegin zuten ipuinaren aurkezpena Altsasuko Iortia Kultur gunean eta dagoeneko salgai dago Arkatz liburudendan eta Ametsen fabriketan Arbizun.

Castillo Suarezek ahozko tradizioa eta ipuin tradizionalak eguneratzeko ikastaro bat egin zuen Xepelar fundazioan. Ipuin tradizionalak, Suarezek esanetan, ezin dira bere horretan eman. Eta ariketa gisa Mainamikirri ipuina egokitzea erabaki zuen. “Mainamikirri oso pertsonai berezi eta erakargarria da. Dohainak zituen eta nolabait jakintza bat adierazten edo transmititzen du. Belu-naldiz-belaunaldi liburuetatik aparte eta naturarekin lotuta dagoen jakintza bat”. Batzuek diote Mainamikirri sorgina zela, beste batzuek sorgina hitza aipatu gabe dohainak zituen neska bat dela. Dena dela, guztiek argi dute Mainamikirri “berandu iristen den jendearekin eta berezia den jen-

dearekin” lotzen den pertsonai bat dela.

Suarez ez da bakarrik egon. Ilustrazioak Josemari Morcillo Morkotsek egin ditu eta maketazioaz Enara Insausti arbizuarra arduratu da. “Argi neukan Altsasuko gauza bat zela eta herrirako gauza bat zela. Bertakoendako. Josemari burutan neukan hasieratik. Baina autoedizioa oso zaila da eta beste lan batzuk daude eta zalantzarik ez genuen izan eta Enara deitu genuen”. Zigilu bat sortu dute: Fanietorri argitalpena. Hasiera bat dela aitortu du Suarezek, “ez dakit nora eramanen gaituen”. Hirurek finantzatu eta editatu dute, eta haien gain hartu dute dena.

### Ahozko tradizioetik liburu ilustratura

Altsasuko ahozko tradizioaren ipuin bat paperera eraman dute. Duela urtebete inguru hasi zen Castillo Suarez ipuina idatzira eguneratzen. Suarezek azaldu duenez, ipuin zahar horiek ezin dira bere horretan eman. Hortaz, laguntza izan dute. 1986an Ageda Zelaia-ri Izaskun Etxeberrriak egindako grabazioa izan du oinarri, baina ez da iturri bakarra izan. Enrique Zelaia-ek etxe-etxe folkloreak inguruko informazioa hartzen egon zeneko dokumentazioa ere izan da, eta Zelaia-ri Jimeno Jurio-ri utzitakoarekin egin zuen argitalpena ere izan du oinarri. Suarezek dioenez Zelaiaren bertsioa “gordina” da eta Jurioarena, aldiz, “literarioagoa”.

Mainamikirri Errota Txikin edo Errota Zaharren agertzen zela. Sorgina ote zen, edo besterik gabe



dohain bereziak zituela. Hainbat bertsio daude, ahozko tradizioa ipuin guztietan bezala. “Herrialde askotan ipuin berdina dago: Bulgariar, Errumanian edo Italian. Mito bereberean daude eraikiak. Hemen zigortzen da kuxkusero izatea. Eta kuxkuseroak nonnahi daude”. Hortaz, ipuina argitaratu aurretik prozesu luzea pasa behar izan du. “Lehendabizi egokitu egin behar duzu eta aholkularitza desberdinetatik pasa”. Koldo Zuazo eta Mikel Galartzaren laguntza izan dute euskararen egokitasunean. “Altsasuko hizkeran grabatuta dago, baina ahozkoan erdarakada asko sartzen dira”.

Ipuinek jakintza bat transmititzea dute helburu, lekio bat ematea. Arlo antropologikotik ere egokitu behar zutela esan du Suarezek: “Gaiztoa izan behar da iji-

toa? Zer zigortzen du ipuin honek? Pobretasuna zigortu behar dugu?”. Hortaz, aldaketa nabarmenak egon dira: gaizkilea ez da ijitoa eta bukaeran hilketa batekin bukatzen zenez, zertxobait moldatu dute ere. Isabel Mendiguren Elkarreko editoreak eta Yolanda Arrieta euskal folklorea eguneratzen adituak lagundu dute ere ipuina paperera eramaten.

Mainamikirriren ilustrazioak egiteko Josemari Morcillo, Morkots, ilustratzaileak argi izan zuen zerbait “intemporal” egin nahi zuela, Mainamikirri-ri ematen zen edertasunaren itxuratik harago: “esaten zuten Mainamikirri oso ederra zela, sexualitate handiko pertsona. Nik ez nuen hori erakutsi nahi”. Gaur egunean aurkitu daitezkeen elementuak, Erdi Arokoekin uztartu ditu marrazkila-

riak: “erregea badago, baina beste pertsonai batzuk gaur egunean egon daitezkenak dira. Ez nuen nahi Tronuen Jokoak baten itxura izatea”. Koloreekin jolastu du ere Morcillok. Gainera, ipuinan ikusten den errota egiteko Urdiaingo errotara joan ziren, eta hiru egileek eskerrak eman diete bertako familiari ere.

Mainamikirri ipuina ostiralean aurkeztu zuten Iortia Kultur gunean, ipuinaren kontakizunarekin eta umeendako tailerrarekin. Ipuin bat bada ere, adin guztietarako dela esan du Suarezek: “Josemarik ez liguke utziko esaten umeendako dela. Jendeak marrazkiak beti haur literatura-ekin lotzen ditu”. Dagoeneko salgai dago Altsasuko Arkatz liburudendan eta arbizuko Amets fabriketan.

## Altsasuarrak ederki Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

**L**eitzako Atakabeltz gaztetxeak 31. Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa hartu zuen ostiralean. 14 eta 18 urte arteko 14 bertsolarik parte hartu zuten. Aurrena, fase irekian, gai orokorarekin, lau oinek eta hitza emanda bertsoak osatu zituzten. Galbahe hori pasata, lau izan ziren bigarren fase-ara pasa zirenak: Joanes Illarregi, Xabat Illarregi eta Ekain Alegre eta Idoia Granizo altsasuarrak. Azkenik, hirugarrenez, Joanesek jantzi zuen txapela eta Xabatekin batera Nafarroa ordezkatu dute Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Saran, garagarri-la-



ren 10ean. Txapelketak 80 entzule elkartu zituen, tartean Altsasuko bertso eskolako gaztetxoak.

Giro ederrean joan zen saioa eta akaberan denendako merendua izan zen.

## Irurtzunek hartuko du Nafarroako Bertso Eskolen Eguna

**Igandean, 11:30ean, Irurtzungo kultur etxean 80 gazte inguruk parte hartuko dute**

**N**afarroan, gauegun, 18 urtetik beherakoek 33 bertso eskola daude. Haietan 302 ikasle jasotzen dute bertso trebakuntza eta horretaz 9 irakasle arduratzen dira. 17 herritan daude bertso eskola horiek eta bakarra Sakana, Altsasun. Bi bertso eskola daude Altsasun: batean 16 eta 17 urte bitarteko lau ikasle aritzen dira eta, bestean, 11 eta 12 urte arteko beste 11 ikasle daude. Astean behingo maiztasunez, bertso gintzaren oinarriak eta irakaspenak

jasotzearekin batera, ahozkotasuna eta gaitasun komunikatiboak garatzen dituzte besteak beste, transmisio bide den giro ludiko batean.

Bertsotan ospatuko dute eguna. 11:30ean elkartu eta ezagutza jolasekin abiatuko da egitaraua. Ondoren, gaztetxoek bertso saioa eta Bertso paperen Lehiaketako sari emate ekitaldia izango dira. Bazkal ostean, berriz, bertso gintzarekin lotutako jolas-dinamiken tartea izango da, 17:00ak arte. Klaseko jarduna osatzeko helburuarekin eta ikasleen arteko elkar ezagutza handitu eta harremanak sendotzeko xedez antolatu da etziko.

## Non erabili

### ILAIA ILEAPAINDEGIA

**ETXARRI ARANATZ**  
Deskontu bereziak.

### T. IRIARTE

#### IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### JOSELEN MODA

#### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tak deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

### INAKI BIZARTEGI-ILEAPAINDEGIA

**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua produktuetan.

### NUEVA IMAGEN

#### ALTSASU

%10eko deskontua.

### ARRUAZUKO OSTATUA

#### ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

### LOGURE

#### ALTSASU

Bandalux 59,00€/m<sup>2</sup> (eskaintza berezietan izan ezik).

### ML MODA

#### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tak deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

### NEREA ILEAPAINDEGIA

#### LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 27 €.

### MARTXUETA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
948 564 275

## Klasiko baten moldaketarekin, institutuko ikasleak eszenara

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

**A**ltsasu institutuko aSanak antzerki taldeak *El secreto de Liliestrata* antzezlan jokatuko du gaur. Aristofanes antzerkigile greziar klasikoak *Lisistrata* komedia idatzi zuen. Hartan Lisistrata gerraren kontra eta bakearen alde egiteko proposamena luzatzen die emakumei: gerrak gelditzeko gizonak sexurik gabe uztea. “Gerra oso gai interesantea iruditzen zait. Gaurkotasuneko gaia da” azaldu digu Marian Utrerak, institutuko antzerki taldeko arduradunak.

Obra klasikoaren umore moldaketa gaurkotua taularatuko dute

gaur. “Akabera berritzailea eman diot. Akabera dago gakoa eta, horregatik, aldatu dugu izenburua”, azaldu digu Utrerak. Berak udan egokitu zuen obra, baina zenbat antzezle izanen zituen jakin arte ez zituen azken egokitzapenak egin. Eta haiek eskutan lastailan hasi ziren entseatzeko. Horretarako, atsedendia eta ostiral arratsaldeak baliatu dituzte, “eskolaz kanpoko makina bat jarduera baitituzte ikasleek”. Joan den urtean egindako musikalak izandako arrakastatik aurten ere musikadun zati bat du obrak.

Azkenik, 19 ikaslek jokatuko dute obra. “Normalean DBHko 3. mailatik gorakoak izaten dira, baina obra koralakenez, aktore gehia-



go behar genituen eta aurten DBHko 1. mailatik Batxilergora arteko ikasleek parte hartzen dute”. Utrera pozik dago sekula baino mutil gehiago daudelako antzer-

ki taldean, bost. Musika, teknologia, orientazio eta plastikako ikasleek ere euren ekarpena egin dute antzezlanerako dekoratua, atrezzo eta soinu oinarria sortuz.

## Haritz Goikoetxearen mikro-ipuina errendako aipamena

**E**uskokultur Fundazioak eta Pamiela argitaletxeak antolatutako X. Mikro-ipuina lehiaketak baditu sarituak. Epaimahaiak lehiaketako sei mailatara aurkeztutako lanak aztertu ondoren eman dute epaia, zehazki, 75 ikastetxetako 1.559 ipuin jaso dituzte. Antolatzaileek izandako parte-hartze handia eta anitza nabarmendu dituzte. Horietatik guztira 23 idazlan saritu dituzte. Dereduko DBHko ikasleen artean Haritz Goikoetxea Florensa *Elurra* mikro-ipuina nabarmendu da. Inigo Aritz ikastolako DBH4ko ikasleak ohorezko aipamena eskuratu du. Saria maiatzaren 10ean jasoko du, Larraintzako institutuan egingen den ekitaldian. Diplomarekin batera, Pamiela argitaletxearen liburu sorta emanen die sarituei. Gainera, aipatutako 23 lanak liburu-ka batean argitaratuko du Pamielak. +www.guaixe.eus

## Egile eskubideengatik Iortia ordenantza aldatuta

**A**ltsasuko Udalak Iortia kultur etxeko erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa onartu zuen martxoaren 29an egindako bilkuran. Orain arte talde amateurrek kultur gunea erabiltzeagatik zegokien tasa ordaindu behar zuten, baina %50eko hobaria zuten. Udaleko Kultura Zerbitzuak kudeatzen ditu emanaldiari lotutakoak, besteak beste, egile eskubideei dagozkienak.

Haiek kudeatzen dituzten SGAE moduko elkarteekin tirabirak izan dituzte behin baino gehiagotan talde amateurrek. Egile eskubideen kudeaketa elkartei kobratu egiten zieten, nahiz eta udalak irabazi asmorik gabeko emanaldia zirela edota erregistratu gabeko moldaketa zela esan. Altsasuko Udalak egindako aldaketarekin, talde amateurrek egile eskubideen kudeaketa elkarteekin, zuzenean aritu beharko dira. Betisa Anda kultur



teknikariak uste du aldaketarekin talde amateurrek irabaziko dutela: “SGAEk udala tartean ikustean kobratu egiten zien. Taldeek hots egiten zuten zergatiak azalduz. Orain taldeek zuzeneko harremana izanen dute eta dena argiago izanen da denendako”.

Udalak hartutako erabakia jendaurrean dago 30 egunez. Hura despeditu ondoren, erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztez bada, behin betiko onartua izanen da.

## Ibarreko lau sortzaile Nafarroa Oinez erakusketan

**L**esakako Tantirumairu ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez festa lastailaren 15ean izanen da. Haren aurretik makina bat kultura ekimen antolatu dituzte, guztiak ere memoria eta sormena ardatz dutena. Horren emaitza ere bada Arte Oinez erakusketa, Nafarroako ikastolen festari lotua urtero egiten dena, 1990az geroztik. Aurtengo erakusketa Iruñeko Kondestable jauregian ikusgai dago bihar arte. Maiatzaren 19tik garagarriaren 4ra, berriz, Lesakan izanen da.

Punta-puntako 71 artisten 72 lan bildu dituzte erakusketan, tartean Jose Ramon Anda, Mikel Okiñena, Txuspo Poyo eta Dora Salazar daude. Gainera, Clara Ganguatiak *Jose Ramon Anda* izenburua duen litografia jarri du erakusketan. +www.guaixe.eus

## Altsasun, kulturaz aske



**F**erietako liskarragatik auzipetutakoak aske nahi dituztela adierazi dute Altsasuko makina bat kultura eragilek asteburuan. Ez dugu izaterik, aske

haiek gabe! Euskal gazteria aurrera! leloa zuen eta zortzi auzipetuen irudia margotua zuen pankarta bat buru zela ospatu zen ostiraleko ikuskizuna. Haize Berriak ban-

da, Erkudengo Ama abesbatza (2 kanta), Tarima Beltza antzerki taldea (4 obraren zatiak), Etorkizuna dantza taldea (bitan), Dantzarima dantza konpainia (behin), Enrike Zelaia eta Trasteando (bi kanta) izan ziren protagonista. 170 bat parte-hartzaile 700 ikuslerena aurrean izan ziren 90 minutu iraun zuen ikuskizunean. Aurretik, ostiraleko kontzentrazioan 250 bat pertsona elkartu ziren.

Sei hizlarik, zein bere esperientziatik abiatuta, Altsasuren berezitasunak eta historia erreparatu zituzten larunbatean. Bargagainen begiradapean mahai-ingurua ren lekuko 100 altsasuar izan ziren. Gauean, gaztetxean kontzertuak izan ziren eta haiek ere arrakasta-

tsuak suertatu ziren. Domekan, berriz, haurrendako jolasak, txokoak eta tailerrak izan ziren Burunda pilotalekuan. Gure Etxea eraikinean helduak elkartu ziren, *Zapore Anitzak* ekimenak erakarrira. Altsasuar berriek Kolonia, Maroko, Bulgaria edota Altsasuko pintxoak prestatu zituzten jendeak dasta zitzan. Aldamenean, auzipetuen gurasoen barra zegoen. Janedanak Helena Santanoren pintura ekintza ikusteko aukera eman zuen, oraingoan Txen dj-ren doinura marraztu zuen. 400 bat pertsona pasa ziren eraikinetik. Kulturasteburua herriko literatur sortzaileen irakurraldiekin, kantuekin eta dantzarekin despeditu zen.

## Dantzari sakandarrak

### Aurresku eta Doinu-Zahar txapelketako finaleran



Lezoko kanporaketa eta gero, Aurresku eta Doinu Zahar txapelketetako finalak erabakiak gelditu dira. Eta haietan sei dantzari sakandar izanen dira. Legazpin, hilaren 13an, Soinu-Zahar txapelketa jokatu da, eta bertan lau etxarrirek parte hartuko dute: 7 eta 12 urte bitarteko mailan Maddi Beltzak eta Maddi Garmendiak eta 13 eta 15 urte arteko mailan, berriz, Elai Gomezek eta Naroa Otxoak. Oreretan, hilaren 27an, Aurresku txapelketako fina-

la jokatu da eta bi mailetan Sakanako ordezkari dago: Ekhi Balda etxarriarra 7 eta 11 urte arteko mailan eta Xabier Bengoetxea zior-diarra 13 eta 15 urte artekoan.

Asteburuan Lezondespedituzen ligaxka. Iñaki Agirre Larraza dantza irakasleak azaldu digunez, txikienak estreinakoaz zuten txapelketan eta "nahiko ongi moldatu dira". Finalerako sailkatu ez badira ere, Amaia Razkin, Uxue Larraza eta Ane Ijurko dantzari txikien lana nabarmendu nahi izan du Agirrek.

## Katalunian mustutako dantza ikuskizuna



**Etorbizuna dantza taldeak Lanabesak ikuskizuna Altsasun hilaren 12an emanen du**

Joan den mende hasierako bizimoduan oinarrituta Etorbizuna dantza taldeak *Lanabesak* ikuskizuna sortu du. Orduko lanabesetan oinarritutako kore-

ografiak Bartzelonako Tordera herrian ikusi dituzte dagoeneko. Dantza taldeko 20 kidek apirilaren 22an emanaldia eman zuten Clave antzokian. Harrera beroa izan zuen dantza emanaldiak eta Etorbizunako kideek Katalunian izan zuen harrera beroa Altsasun errepikatzea espero dute.

## Txikien dantzari eguna



Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako eta Berako Gure Txokoa dantza taldeko dantzariak larunbat goizean Altsasuko kaleak bete zituzten. Eguerdian kalejira egin eta euren dantza trebezia erakusteko geldialdiak egin zituz-

ten Zumalakarregi eta San Juan plazetan, kultur guneko zabalgunean eta Foru plazan. Arratsaldean, atzera ere, Foru plazan eskolako fanfarrearen doinura erromerian dantzan aritu diren parte hartu zuten 100 dantzariak.

## Pop-Rock lehiaketaren finala jokatu da bihar

**Larunbatean, 19:30ean, Lakuntzako Kultur etxean Garabatos, Embajada eta Alerta Gorria.**

Euren musikaren defentsa egokia Lakuntzako kultur etxeko oholtzan egoki egin dute lehiaketan izena eman duten 11 taldeetatik 10ek, bestelako ara-

zoengatik batek, SLDk, ezin izan baitzuen parte hartu. Epaimahaiak bere puntuazioa jakinarazi du eta horrekin batera hiru finalistak ere.

### Finalistak

#### Alerta Gorria

2009tik punk-oi! Doinuak lantzen dituen talde arbizuarra da. Boskotea honakoek osatzen dute: Joanes Satrustegi Olasagarrek (bateria), Asier Reparaz Marroyok (ahotsa), Ander Garcia Razkinek (gitarra),



Jon Iriarte Unzillak (baxua) eta Urtzi Markinezek (gitarra). Taldearen izen bereko diskoa argitaratu zuten 2013an. *Piztia basoan* diskoa, berriz, 2015ekoa da. Makina bat kontzertu eman dituzte zortzi urte hauetan Euskal Herrian barna.

#### Garabatos

Duela bi urte sortu zen. Mikel Manero Arguelles (bateria) eta Gaizka Ocaña Goikoetxea (gitarra) aurretik talde berean egonak ziren.



#### Embajada

Joan den urteko garilean sortu zen laukotea, "festetangiro pixka bat jartzeko kontzertua" eman eta gero. Orduetik Igor Maiza Beteluk (baxua), Mikel Flores Ruizek (gitarra), Fernando Jimenez Jimenezek (bate-



ria) eta Ibai Lanz Beteluk (gitarra eta ahotsa) osatzen dute lakuntzarrez osatutako taldea. Taldeak bederatzita hilabete besterik ez baditu ere, taldekideek eskarmentu handia dute pilotua. Maiza, Jimenez eta Lanz Lakuntzako musika lokalean, hiltegiaren 2008an sartu eta The Sekta taldearekin sortu zuten. Musikarekin aurreneko kontaktu horren ondoren, talde ugartan ibili dira Jimenez eta Lanz. Haietako batean Kaos Etiliko-

Sailkapena	Puntuak
Embajada	79
Garabatos	75
Alerta Gorria	72
Shock Down	68
Dentera	68
Brutal Room	64
Innanables	62
Kaskatako	59
Atzaparock	56
Zintz	42

### Sariak

**Lehena**, disko bat grabatzeko 40 orduko grabaketa.

**Bigarrena**, estudio batean eta ekoizle profesional batekin abesti baten produkzioa eta grabaketa egiteko zortzi orduko jardunaldia.

**Sari berezia** Hatortxu Rocken 20. edizioan kontzertua emateko aukera. Azken horren kasuan, publikoaren irizpidea ere aintzat hartuko da irabazlea hautatzerakoan.

**BIKAIN GARAJEA, S.A.L.**  
 948 460 037 Arbizi  
 948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea**

**2.eL@FESTA**  
**ALTSASUN FORU PLAZA**  
**MAIATZAK 6 >>> 12:30**

**Euskara praktikatu eta bizi Sakanan**

948 468 258  
 www.sakananeta.blogspot.com  
 sakanan@euzkoherria.org  
 sakanan@euzkoherria.org

Antolatzailea: **ack Mank**  
 Laguntzaileak: **ETXERAKO**, **ETXERAKO**, **ETXERAKO**

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 30%	euria: 15%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 20%	euria: 30%
Min: 16 Max: 23	Min: 12 Max: 25	Min: 10 Max: 21	Min: 10 Max: 22	Min: 11 Max: 25	Min: 14 Max: 22	Min: 12 Max: 20

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	22	0	16.5
Etxarri A.	21	-2.8	10.8
Altsasu	20	-0.5	15
Aralar	13	-3.7	5
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
10	19	25	1

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide sarituak

BENJAMIN ULAIAR  
IGOA  
(LIZARRAGABENGOA)

MONIKA ETXEBARRIA  
ARIZNABARRETA  
(ARBIZU)

MANUEL CHAMOSA  
PORTO  
(LIZARRA)

SEBASTIAN FLORES  
FLORES  
(URDIAIN)

APIRIBILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina:  
%10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2., 3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina:  
%10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

# >> 11 galdera

Jorge Yeregi,  
Maria Ruiz eta  
Pello Iglesias

Altsasuko artisau azokako antolatzaileak

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



# Eskola agendak 2017 2018

Irakasle  
koadernoak

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

**1. Zer da zuendako artisautza?**  
Guretao artisautza garai batean herrietako bizi arruntean lanak nola egiten ziren erakustea da. Gaur egun egitea ia ezinezkoa da zaharkituta edo oroitzapenean gelditu diren lanak direlako. Gu garai batean egiten ziren lanen erakustaldi bat antolatzeko lan egiten dugu. Hori da guretao artisautza. Orduan ia dena zen esku-lana.

**2. Eta zergatik artisau azoka?**  
70. hamarkadan herrian egindako lanak pixkanaka galtzen joan zirela ikusi genuen. Garai batean nola bizi edo nola lan egiten zen ikusteko zerbait egiteko premia sentitu genuen.

**3. Noiz egin zen aurrena Altsasan?**  
1974 aldera hasi zen. Festa euskarok ziren orduan eta maiatza akaberan egiten ziren. Ez genuen halako azokarik ezagutzen. Errenteriakoak eta Getxokoak hona zer eta nola egiten genuen ikustera etorri ziren. Errenteriakoak egin zenean autobusez joan ginen. Dauden zaharretarikoak dira biak. Altsasukoa lehena ez bazen izan, aurrenetakoa.

**4. Zeinek antolatuta?**  
Jende pila zuen Gure Etxea kirol eta kultura klub mistoa hasi zen. Urtean barna jarduera ugari antolatzen zituen. Artisau azoka antolatzea asko kostatu zen: udalak ez zuen nahi eta oso aurrerakoiek ezta ere (gu amodio libreaz zuek honekin). Orduan dirutza zen 100.000 pezetako aurrekontua izan

zuen. Horretarako 1.000 pezeta zituzten ehun altsasuar bilatu genituen.

**5. Zergatik utzi zitzaion antolatzeari?**  
Gure Etxea kluba desagertu zelako. Instituzioen presio handia zuen. Nafarroako Gobernuaren hainbat abisu jaso zituen presidenteak. Kezkagarria ere izan zen: hemen zerbait pasa behar da... Udalaren gaztigua iritsi zen. Bestetik, herritar talde baten alde tik ulermen gutxi. Inauterietan gertatu bezala, kontatzeko hura berriro ez egiteko baldintza jartzan ziguten. Lan haiek pobreen gauza zirela... Batzuen eta beste en artean, azkenean...

**6. Zergatik bueltatu zen azoka 1992an?**  
Juan Manuel Goikoetxea zen alkateta eta aurreko aldiaren ibilitakoe kin hitz egin zuen. Berriro antolatu beharra zegoela ikusi genuen. Aurreneko aldiaren atera zirenak tentatzen hasi ginen. Egiteko aukerazegoela ikusi genuen. Zerbait urtez altsasuarrekin antolatu genuen azoka. Baina urtero berdina egotea nahiko errepikakorra zela ikusi genuen. Eskualdeko esku-langileetara zabaldu genuen. Jendea bilatzen hasi ginen. Baina arazo bera: heriotza eta adina. Eremua zabaltzen joan ginen. Hala segitzen dugu. Herrian maiatzeko gurutzeko festa beti ospatu izan denez, egun horretara aldatzea egoki ikusi genuen. Ferialekuan antolatzen hasi ginen. Baina zeuden jardueretarako handiegia zen eta plazara pasa genuen.

**7. Azokaren bi aldietan parte hartu duen artisaurik badago?**  
Bai. Gutxienez, aurrenekoan aritu ziren hiru badaude. Juanita Mazkianek taloa egiten segitzen du. Besteek jarduna utzi dute.

**8. Noiz hasten zarete azoka prestatzen?**  
Ogibide zaharrek segitzen duten bila lurralde guztian barna gabiltza, beste azoketan. Urtean zehar hitz egiten dugu. Hilabete eta erdi lehenago ekiten diogu. Jende asko gelditzen da kanpoan. Jendea ez nekatzeko aldaketa eskaini nahi dugu. Urtero zerbait berria bilatzen saiatzen gara. Baina oso zaila da, hortik barna dauden azokak egungo artisautzari eskainiak baitaude. Altsasuko azokan ari direnak lanean aritu behar dute, gainera. Aurten, estreinakoz, Vianako sokagilea heldu da.

**9. Zenbat pertsona aritzen zarete antolakuntzan?**  
Bospasei gara.

**10. Igandean noiz hasten zarete lanean? Eta noiz bukatu?**  
8:00etan hasten gara prestaketa rekin. Bukatu... 19:00ak dira eta oraindik hortik gabiltza. Prestatu, jaso, utzitakoak bueltatu... lan ugari dago.

**11. Jardun batzuk desagertzen ari dira. Zer egin?**  
Gaur egun jendeak ez du halakorik egin nahi. Ez da errentagarria. Aritzen direnak, garai bateko ogibidea ez galtzeko ari dira.  
Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)